

Kultura

Doctor Deseo taldeak 'Busco en tus labios' disko berria aurkeztuko du gaur, Plateruenean >12



Markomin Goikoa harrobirako plan berezia landu du Mañariko Udalak

Harrobiaren jarduera arautzea da plan bereziaren helburua. Naturarekiko dituen eraginak ere jasotzen ditu planak

Markomin Goikoa harrobiaren plan bereziari hasierako onarpena emango dio gaur Mañariko udalbatzak. 2002ko udal arauak harrobirako plana eskatzen zuten, baina orain arte ez da pausorik eman. Endika Jaio alkateak azaldu duenez, plan berezia in-

darrean egongo da ustiapen baimenak iraun bitartean. Udala da planaren sustatzailea, baina garapena harrobiaren esku dago. Egitasmoa onartu eta gero, jendaurrean ipiniko dute plana 45 egunez, alegazioak jasotzeko. >4



'Anboto' aurrerantzean Zornotzan ere bai

Gaurtik aurrera Zornotzako albistek landuko ditu 'Anboto'-k. Eguazteneko aurkezpenean herriko elkarte eta eragileen babesa jaso zuen >2-3

Kepa Aginako

Aukera
Azoka
DURANGO 2014

LANDAKO GUNEA



Ordutegia

Ostirala 10.00 - 14.00
Larumbata 17.00 - 21.00

Igandea 11.00 - 14.00
17.00 - 19.00

martxoak
7-8-9



Durango > 6

Martxoaren 12an abiatuko dute gutun sozialaren eztabaida

Otxandio > 9

115.000 euro eskuratu ditu udalak, katastroa eguneratuta

Berriz > 6

Inbertsioen erdia Iturritzako hobekuntzetarako erabiliko dute

Abadiño > 8

McDonald'sek udarako zabaldu gura du hanbursesategia

➤ Herririk herri



Joseba Derteano, Itsaso Esteban, Andoni Agirrebeitia eta Jone Guenetxea, aurkezpen ekitaldian.



Xabier Irakulis (Bildu), Andoni Agirrebeitia (EAJ) eta Urko Lopez (Bildu)

➤ ZORNOTZA

Zornotzarrek ongietorria eman diote 'Anboto'-ri

Gaurtik aurrera 'Anboto'-k Zornotzako albistekak landuko ditu; eguaztenean egindako aurkezpenean herriko eragile eta elkarten babesa jaso zuen

➤ MARKEK ONAINDIA

Gaurtik aurrera Zornotza *Anboto*k lantzen duen hamahirugarren herria izango da. Zabal-kundearen berri emateko hedabideak Zornotzako elkarteei eta eragileei egindako deialdiak erantzun zabalak izan du. Kultur eta kirol elkarte, ikastetxe, sindikatu eta alderdi politikoetako hainbat ordezkari bildu ziren eguaztenean Zelaieta zentroko aurkezpenean. Andoni Agirrebeitia kultura zinegotziak egin zuen anfitrioi lana. "Erronka handia da guretzat euskara hu-

tsez den astekaria zabaltzea, eta ilusioz eutsi diogu erronka horri". Gaineratu zuenez, "euskararen erabilera normalizatzeko prozesuan oso erabakigarria da, hurreko berriak gertaerak eta abarrak, gurea dugun eta sustatu gura dugun hizkuntzan jaso ahal izatea". Agirrebeitiak *Anboto* Zornotzara zabaltzeko herritar talde batek egin duen lana eskertu zuen.

Aurkezpenean, Jone Guenetxea *Anbotoko* zuzendariak proiektuaren ezaugarriak ezaugarazi zituen. Nabarmendu

zuenez, "garrantzitsua da orain herriko elkarte eta eragileek proiektuan parte hartzea". Il-do horretatik, *anboto.org* webguneak Komunitatean parte hartzeko eskaintzen duen aukera gogora ekarri zuen. "Komunitatea atalean elkarte zein norbanako bakoitzak bere blog propioa sortu eta informazioa partekatzeke aukera du". *Anbotoko* zuzendariak proiektua Zornotzara zabaltzeko herritar talde batek egindako ahalegina eta udalaren laguntza eskertu zituen.



Alaiak abesbatzako Maite Gonzalez eta Maria Luisa Etxeandia



Nañon euskara elkarteko Asier Bilbao eta Gotzone Bilbao



Triki-Piú-Pand taldeko Soraya Agirregoikoa eta Nagore Palacios



Jose Etxebarria (Zornotza ST), Alazne Urkiaga (Urgozo TT), Mitxel Etxebarria (Zornotza ST) eta Jon Gorostiza (Urgozo TT)

Laguntzaileak:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa

anboto 
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-lurreta
(Bizkaia)
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa:
946 232 523
Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2014ko martxoaren 7a,
12. urtea - 536. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso,
Amaia Huarte, Itsaso Altuna.
Erredakzioa: Aitziber Basauri,
Itsaso Esteban, Joseba Derteano,
Markel Onaindia, Amaia Ugalde
eta Maialen Zuazubiskar.
Maketazioa: Eider Alberdi.
Zuzentzaileak:
Jon Ander Urkiaga.
Argazkilariak: Kepa Aginako,
Zalao Fuertes.

“Ordua zen Zornotzan euskara hutsezko hedabide bat izateko”

‘Anboto’-k harrera beroa izan du zornotzarren artean; harpidetza egiteko unea da orain

> J.G.

Anbotoren aurkezpenean, Zornotzarren ahota ibili zen orain arte herrian bazegoela “premia” euskara hutsezko hedabide bat izateko. “Ordua zen Zornotzan euskara hutsezko hedabide bat izateko”, zioten elkarte eta eragileetako hainbat kideak.

Aurkezpenean Zornotzako elkarte eta eragileen ordezkariak zabalak parte hartu zuen. Arlo politikoari dagokionez, EAJko eta Bilduko zinegotziak izan ziren Zelaieta zentroan. Kultur arloko ordezkari artean, Zokoel jai batzordea, Zornotzako bertso eskola, Triki-Piú-Pand elkarte, Alaiak abesbatza, Primeros Auxilios musika taldea eta Txitxarra elkarte egon ziren. Kirol arloan, berriz, Urgozo txirrindulari taldea, Amorebieta futbol taldea, Zornotza Saskibaloia Taldea eta Zornotzako mendi taldea. Irakaskuntzari dagokionez, Urritxe institutuko, Zubiaur Musika Eskolako eta Andra Mari ikastolako ordezkariak izan ziren ekitaldian. LAB sindikatuko, AEK euskaltegiko, Udalen emakume elkarteko eta

Nañon euskara elkarteko kideak ere hurreratu ziren.

Harpidetza kanpaina

Hurrengo urratsa Zornotzan harpidetza kanpaina indartsu bat egitea izango da. “Garrantzitsua da zornotzarrek argi izatea doan izan arren, *Anboto* etxean jasotzeko harpidetza egin behar dela”, diote *Anbotoko* arduradunek. Harpidetza egin ahal izateko eskuorria banatuko da etxe guztietan. Bertan, izena emateko bideak azaltzen dira. Eskuorrian eskatzen diren datuak beteta, Zelaieta zentroan, AEKn eta udal euskaltegian jarritako kutxetan utzi daiteke. Bestalde, e-mailez (anboto@anboto.org mezua bidalita), anboto.org webgunearen bidez edo 946 816 558 telefonora deituta harpidedun egiteko aukera dago.

“Lehenengo asteetan martxa hartzen lana izango dugu, banatzaileak ibilbidea ezagutu arte. Harpidetza berriak etorri ahala erregistratuko ditugu”, azaldu du Miren Abasolo *Anbotoko* banaketa arduradunak. Urte bukaeran balorazioa egingo dute.



‘Anboto’ zabalitzeko lanean ibili den taldea J. Agirre (ezkerrean) presidentegaz eta J. Guenetxea zuzendariagaz (eskuinean)



Bertso eskolako Jon Ander Urkiaga eta Xabier Irakulis



Primeros Auxilios musika taldeko kideak

Herritar talde baten eskaera

Zornotzar talde batek sinadurak bildu ditu ‘Anboto’ herrira zabaltzeko



Euskararen Egunean ateratako argazkia, ‘Anboto’ eskuetan dutela.

> J.G.

Anboto astekaria Zornotzara zabaltzearen erantzule handienetako bat herritar talde bat izan da. *Berriaren Zure ziztada behar dugu* kanpainarako biltzen hasi ziren, eta euskal hedabideen inguruko hitzaldi bat antolatu zuten Zelaieta zentroan. Mahai inguru hartan *Anbotorekin* hartu-emanen jarri ziren. “Gure artean kezka bat zabaldu zen: Zornotzan ez genuen euskara hutsezko hedabiderik”, azaldu dute. *Anboto* Zornotzara zabaltzea eskatzeko sinadura bilketa jarri zuten martxan. Astekarian Zornotzako gaiak landu ez arren, herrian astekaria banatzen hasi ziren, herritarren artean

Anboto ezagutarazteko. Ale bakoitzaren barruan orritxo bat jartzen zuten galdera birekin: “*Anboton* Zornotzako berriak agertzea nahiko zenuke? Ba al dakizu Zornotzako euskaldunok ez dugula gure herriko kontuen berri izateko euskarazko hedabiderik?”. Banaketa euskaltegi, kontsultategi, ile apaindegi, zahar etxe eta liburategian egin zuten, adibidez.

Herriko euskararen erabileragaz arduratuta, euskararen normalizaziorako bidean urrats bat eman dutela diote taldekideek: “Zornotzan euskaldun oso eta erdi euskaldunen kopurua batuz gero, biztanleen %70 gara. Hala ere, ez da euskararik entzuten”.



DURANGO ARDO SALT SAN
ETORRI TA DASTAU

VII. ARDO FERIA
ETA DELIKATESSEN

TOKIA **LANDAKO GUNEA** **MARTXOAK 15**



durango
gustura, a tu gusto

WWW.TURISMODURANGO.NET






DURANGO
Ustea - Ayuntamiento

> MAÑARIA

Markomin Goikoa harrobirako plan berezia landu dute

Harrobiaren jarduera arautzea da plan bereziaren helburua; naturarekiko eraginak ere jasotzen ditu

> MARKEL ONAINDIA

Markomin Goikoa harrobiaren plan bereziari hasierako onarpena emango dio gaur udalak. 2002ko udal arauak harrobirako plana eskatzen zuten, baina orain arte ez da pausorik eman. Aurrerantzean, ezingo dute nahierara funtzionatu. Izan ere, dokumentu berriaren helburua harrobiaren jarduera arautzea da, mugak ezarri eta erabilera finkatuta. Adibidez, eraikinak, zerbitzuak eta etorkizunerako hedapenak zehaztu dituzte. Planak bigarren atal bat dauka, ingurumenagaz lotutakoa. Naturarekiko ematen diren eragin guztiak jasotzen dira, eta kalte horiek murrizteko beharrez-

koak diren neurriak eskatzen ditu bigarren atal horrek.

Endika Jaio alkateak (Bildu) esan du plan berezia ustiapen baimenak iraun bitartean egongo dela indarrean. Eusko Jaur-laritzak 2027ra arteko baimena eman zion Markomin Goikoari, eta 30 urteko beste bi luzapen eskatzeko aukera edukiko du. Enpresak hainbat neurri hartu beharko ditu plan berezia behin betiko onartzen denetik aurrera. Esaterako, errekatik hamar metrora harea piloak dauzkate, eta horiek kendu beharko dituzte sei hilabete baino lehen. Gero, inguru hori berreskuratu beharko dute. Harrobiaren eremua ez da urbanizagarria



Markomin Goikoa harrobia herriaren sarreran dago.

izango, eta bertarako jarduera bi bakarrik baimendu dituzte: harria ateratzea eta hormigoia fabrikatzea.

Udala da planaren sustatzailea, baina garapena harrobiaren esku dago. Jaiok azaldu du adostasuna lortu gura izan dutela. Gaur ezohiko udalbatzarra egingo dute gaia lantzeko, eta, gero, egitasmoa jendaurrean ipiniko dute 45 egunez, alegazioak aur-

kezteko aukeragaz. Alkateak adierazi du pauso garrantzitsua dela plan berezia onartzea.

Harrobiei lotutako herria

Mañaria harrobi jarduerari lotutako herria da. Zalloventa itxita, Markomin Goikoa eta Mutxate daude aktibo. Ingurumenean, osasunean eta paisaian eragina daukala aitortu du Jaiok; eguneroko ogia dira

zarata, hautsa eta lur dardarak. Horregatik, Bilduren nahia baimenak amaitzean inguru horiek ixtea eta berreskuratzea da. Baina, eragin ekonomikoa ere hor dago. Eta Jaioren ustez, harrobiko beharginak ezin dira alternatiba barik utzi: "Motor ekonomiko berriak sortzen joan beharko gara. Hori da udalak herriaren etorkizuna bermatzeko izango duen erronketariko bat".

> IZURTZA

Udal eraikinen ordenantza aurkeztu diete herritarrei

Ekarpenak jaso zituzten, udal eraikinen erabilera arautzen duen ordenantzaren zirriborroa osatzeko

> JOSEBA DERTEANO

Martitzenean, herritarren ekarpenak jaso zituzten udal ordezkariak udalbatzar aretoan egindako batzar irekian, udaleko eraikinen erabilera arautzen duen ordenantza osatzeko. Mendigain dantza taldeko, jubilatuen elkarteko eta Argintxu elkarteko ordezkariak batu ziren.

Ordenantzak, arau orokorrez gain, eraikin zehatz batzuen erabilpena ere arautzen du. Gazte lokalekoei eta Mendigain dantza taldekoei bideratutako eraikinari buruz honako hau propo-

satzen du: goiko solairua gazte lokalekoen erabilpenerako bideratzea eta behekoa talde bien ekintzetarako partekatzea. Mendigainen ordezkari Oskar Zarrabeitiak esan zuenez, "beheko solairuak gaur egun duen banaketagaz ezin dugu entsegurik egin, ez dago espazio nahikorik. Ez dugu inogaz gatazkarik sortu gura. Pilotalekuan entseatzen dugu, eta pozik gaude. Azterketa bat egitea bakarrik eskatzen dugu, beheko solairuko espazioaren banaketa berregituratzea posible ote den jakiteko".

> ATXONDO

Krisiari aurre egiteko gakoak martitzeneko hitzaldian

> J.D.

Datorren martitzenerako, krisi ekonomikoari aurre egiteko gakoak emango dituen hitzaldia antolatu dute Apatan, udaletxeko udalbatzar aretoan, 17:00etan. Hitzaldia gaztelaniaz izango da, eta *Krisia, Nola bizi ezer aurreztu gabe?* izenburupean, batez ere, eguneroko bizimoduaren krisiaren eraginari

aurre zelan egin jakiteko aholkuak emango ditu Suspergintza elkarteko aditu batek. Suspergintza irabazi asmorik gabeko elkarte da, egoitza Bilbon duena. Azaldu dutenez, batez ere pertsona nagusiei zuzendutako berbaldia da, baina oro har, krisiak eragindako lagun denentzako zabalik dago. Durangaldeko Amankomunazgoak antolatu du hitzaldia.

Aholku praktikoak eman, eta adibide konkretuak ipiniko dituzte. Azalpen guztiak eman ostean, bertaratutakoak dudak argitzen eta galderei erantzuten saiatuko dira.

> IURRETA

Tellitu udalak kudeatuko du beste lau urtez

> AITZIBER BASAURI

Tellitu aparkalekua hartzen duen orubea erabiltzeko lotutako akordioa lau urtez luzatzea berretsi du udalak. 2007an lotu zuten lagapen akordioa

Orain arte lez, udala mantentze lanen kargu egingo da, eta Iñaki Totorikaguena alkateak argitu duenez, Ondasun Higiezin gaineko Zergaren kargu egingo da; hori 400-500 euro artean izaten da, Bilduk galdetuta, udalbatzarrean argitu zuenez. Dena den, lur hori garatzeko urbanizazio lanak hasteko aukera egonez gero, jabe den enpresaren esku geratuko da lur hori.

Musikaz girotuko dituzte kaleak, Martxoaren 8a gogoan hartzeko

> A. B.

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta, *flashmob* bat grabatuko dute herrian, Gose taldearen *Rimmel* abestiak lagunduta. Parte hartzera deitu du Iurretako gazte asanbladak. Dantzari plazan egin dute hitzordua, 12:00etan, herriko hainbat bazterretan koreografia grabatzeko. Gero, 13:30ean, denak elkartuko dira abestiaren errepika grabatzeko. Deialdi zabala egin dute gazte asanbladakoek, ahalik eta herritar gehien batzeko.

> ELORRIO

Salsa eta bachata, gerria mugitu eta mitoak apurtzeko

Gaztetxeko salsa eta bachata ikastaroak arrakasta eduki du; 45 lagun batu ziren lehen saioetan



Astelehenean, gaztetxean egindako dantza saioa.

> M.O.

Elorrioko gaztetxean ematen dabilzan salsa eta bachata ikastaroak arrakasta itzela dauka. Astelehenetan elkartzen dira dantza egiteko, 20:00etan. Lehenengo bi saioetan 45 bat lagun batu ziren, eta astelehen honetan 25. Berez lau saioko ikastaroa izan behar zen, baina partaideen eskariz beste bi ere egingo dituzte, eta hilaren 24ra arte luzatuko da. Iker Minguez dabil irakasle, eta pozik agertu da. Karibeko erritmoekin gogotsu dabilza gerria mugitzen.

"Lotsa kendu behar dugu; askatu eta disfrutatu". Euskaldunok gatz bakoak garelako mi-

toari buelta eman behar zaiola uste du Minguezek. Elorrioren hogeitabat mutilek parte hartu dute, beste aurreiritzi bat apurtuta.

Minguez Hego Amerikan egon zen urtebetez, eta han hartu zuen afizioa. Gero, 2012an, Durangoko Txo tabernan hasi zen ikasten. Bere ikaskide bik, Raquel eta Jonek, laguntzen diote gaztetxean. Guztien laguntza eskertu, eta Elorrioz kanpokoak ere gonbidatu ditu ikastarora.

Salsa eta bachatak herrian eduki duten arrakastaren ondorioz, Mojito Gaua ospatuko dute hilaren 15ean, Parra tabernan. Horrela, gaztetxean ikasitakoa praktikan ipini ahaliko dute.

SATM MOBEL



ETXEKO ALTZARIEN KONPONTZE ETA GARRAIO LANAK

**20 urteko
esperientzia**

KONPONKETAK

Armairuak, oheak, mahaiak, aulkiak, tiradera-altzariak, sofak, besaulkiak eta abar.

ORDEZKO PIEZAK

Bandak, heldulekuak, tiradera-gidariak, sofen motorrak, ohe artikulatuen motorrak, kanape eraisgarrien euskarriak eta abar.

EGOKITZAPENAK

Zure altzariak etxeko edozein eremutara egokitzen ditugu.

MUNTAIA

KIT altzarien muntaia.

ALDAKETAK

Armairuen barrualdeak, apalak, moduluak eta abar.

Konponbiderik bizkorrena eta errazena zure altzariei erabilera luzatzeko!

Garraio lanak eta etxe-aldaketak.

Eibar - Tel.: 608 076 054



> DURANGO

Plateruenean aurkeztu zuten, joan zen zapatuan, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren inguruko eztabaida

Martxoaren 12an abiatuko dute gutun sozialaren eztabaida

Durango hainbat elkarte bat egin dute eskubide sozialaren eztabaidarekin

> MARKEL ONAINDIA

Plateruenean egin dute Eskubide Sozialen Kartaren eztabaida prozesuaren aurkezpena, eta Durango zenbait elkartetako ordezkariak hurreratu dira. Euskal Herriko hainbat herritan ematen dabiltzan eztabaida dakarte Durangora. “Guk ez dugu nahi pobrezian, injustizian, bazterketan eta bereizketan oinarritutako Euskal Herririk”. Deitzaileek adierazi dute gobernuak eskubideak murrizten dabiltzala krisiaren aitzakiapean, eta horren helburua herritar

rrak “pobrezia kondonatzea” dela. Horren aurrean, bestelako eredu batean sinisten dutela diote; besteak beste, eskubide sozial eta laboralen errespetua, justizia soziala eta parte-hartzea kon-tuan hartzen dituen ereduak.

Gutuna ez da aldarrika-penerako tresna hutsa izango: “Euskal jendarte osoaren indarra eta garatzen ari garen borroka batzeko, eta bidean elkarrekin lerrotzeko unea da”. Gainera, “eredu ekonomiko eta sozial propioa garatzeko” bidea emango diela uste dute. “Euskal

Herrian eta Euskal Herriaren-tzat egindakoa eta erabakitakoa; eta ez elite politikoak egin”.

Hilaren 12an, 19an eta 26an Pinondo Etxean batuko dira, 18:30ean hasita. 12an erabakitze-ko eskubidea, eskubide kulturalak, ingurumen eta lurralde eskubideak eta jatorri aniztasuna izango dira gaiak. 19an, lan eta ekonomia eskubideak, aniztasun sexuala, eta emakumeekiko indarkeria. 26an, aniztasun funtzionala, hizkuntza eskubideak, eskubide sozialak, bizitzaren mantentzea eta parte-hartzea.

Ikasle Abertzaleek protesta deitu dute LOMCE legearen kontra

Martxoaren 13rako manifestazioa deitu du Ikasle Abertzaleak elkarteak

> M.O.

Ikasle Abertzaleak elkarteak manifestazioa deitu du hurrengo egunerako, martxoaren 13rako. Espainiako hezkuntza arloko LOMCE legearen kontrako protesta izango da, eta Euskal Herriko hezkuntza sistema propio bat ere eskatuko dute ekimenean. 19:00etan hasiko da Santa Ana plazan. Martitzenean eman zuten deialdiaren berri

Ikasle Abertzaleek. Adierazi zuten ez daudela batere ados gaur egungo hezkuntza sistemagaz: “Kapitalismoan pieza bat gehiago izateko hezten gaitu”. Euren artean lehiatzeko eta indibidualistak izateko prestatzen dituztela kritikatu zuten, ustez balio dutenen eta balio ez dutenen artean bereizten dituztela, generoaren arabera banatutako rola garatzen dituztela... Gai-

nera, zazpi lurraldeetako nazio ikuspegia bazterten dela uste dute, eta euskalduntzea bermatzen ez duten ereduak bultzatzen direla ikastetxe batzuetan.

Ikasle Abertzaleen arabera, LOMCE legeagaz “zapalkuntza horiek guztiak muturreraino eroan gura dituzte”.

Mugimenduaren “eztanda”

Egoera horri buelta eman guran, greba egingo dute Bizkaiko gainerako ikasleekin batera, hilaren 27an. *Eztanda* deitu

Euskal Herriko hezkuntza sistema propio bat ere eskatuko dute ekimen berean

diote ekimenari: “Ezinbestekoa da egungo ereduak errotoz irauliko duen ikasle mugimendua leherraraztea”. Eta dinamika horren harira egin dute manifestaziorako deialdia. Ikasleek gainera, LOMCE legearen kontra dauden herritar guztiak animatu dituzte parte hartzera.



Ikasleek manifestaziorako deia luzatu zuten, martitzenean.

Martxoaren 15ean hasiko da Plateruena berridazteko gogoeta

Platerueneko gogoeta herritarrekin egingo dute

> M.O.

Martxoaren 15ean hasiko dute Plateruena Kafe Antzokia berridazteko gogoeta prozesua. Aurten hamar urte beteko dira Berbaro elkartearen eskutik euskarazko kultur gintza sustatzeko antzokia sortu zutenetik, eta proiektua eraberritzeko beharra ikusi dute arduradunek. Hausnarketa hori, herritarrekin batera egin gura dute.

Zilarberritzen, Durango kultura bizitzeko. Hori da prozesuari izena emateko erabili duten leloa edo berba-jokoa. Hurrengo zapatuan izango da lehengo tailerra, 10:00etan. Gero, beste batzar bi ere egingo dituzte apirilean eta maiatzean. Prozesu hori dinamizatzeko ardura EHUKo Parte Hartuz ikerketa taldeko kideek edukiko dute.

Aurkezpenean, 150 lagun

Joan zen azaroaren 30ean egin zuten Platerueneko gogoeta prozesuaren iragarpena. Batzar zabal bat deitu zuten, eta 150 lagunetik gora hurreratu ziren.

Horietako asko, Durango elkarte kultural eta sozialetako kideak ziren. Bertan, Platerueneko kide Erika Urangak, Parte Hartuzeko Marta Calvok eta Alicia Susok, eta Mario Zubia-ga irakasleak berba egin zuten. Etorbizuneko egitasmoaren norabidea Durango kultur gune herritarra bihurtzea izango da.

Platerueneko arduradunen ustez, bertako kudeaketa profesionala kulturzaleen parte-hartze zuzenagaz uztartu behar da. “Duela hamar urteko eredu zaharkituta dago ekonomikoki eta kulturalki”. Plateruena udalerrinari dela diote: “Udalarena eta herritarrena, eta hobetu egin behar dugu udal arduradunen eta herri-ekimenaren arteko koordinazioa.

Oraindik, hasierako inbertsioagaz sortutako zorra kitatzeko lanean dabiltza Plateruenean. Baina egoera zail horrek ez du kultur eskaintzan etenik ekarri. Eta, euskarazko kultur gintzaren ildoan sakonduko dute prozesu berriagaz.

16.000 lagun batzeko asmoa Aukera Azokan

23 dendatako gaiak egongo dira IX. Aukera Azokan



Arana, Bardezi eta Guerrero, aurkezpenean.

> M.O.

Dendak Bai merkatari elkarteak IX. Aukera Azoka antolatu du asteburu honetarako. Gaur, goizeko 10:00etan zabaldu dute azoka, Landako Gunean, eta 23 dendatako produktuak egongo dira salgai domekara bitartean. Soberan geratu zaizkien produktuak prezio merkeagoan eskainiko dituzte dendariak. Dendak Bai elkarteak Ane Aranak, Inma Bardezirik eta Araceli Guerrerok eman zuten eguaztanean azokaren inguruko informazioa. Aranak egin zuen berba euskaraz, eta iazko edizioaren antzera, asteburuan zehar 16.000 lagun batzea espero dutela adierazi zuen.

Produktuez gainera, aisialdirako egitaraua ere prestatu dute. Gune batean kafetegia ipini dute, eta beste batean ludoteka. Bihar magoa egongo da umeentzat, 18:00etan, eta domeka goizean poneyan ibiltzeko aukera edukiko dute txikiak. Bestalde, domeka arratsaldean Galletegi harategiko hamburgesa dastatu ahal izango da, Durango Txartela edo hamar euroko erosketa tiketa erakutsita.

Gaur eta bihar 10:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 21:00etara zabalduko dute, eta domekan 11:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 19:00etara. Erosketa tiketagaz aparkalekua doan eskainiko dute ordu birako.

> DURANGALDEA

Nerea Lersundi eta Mireia Delgado, Txoko Feminista eta Bilgune Feministako kideak, hurrenez hurren.

“Abortuaren legea emakumeon gorputza kontrolatzeko beste neurri bat da”

Nerea Lersundi eta Mireia Delgado feministek abortuaren lege erreforma kritikatu dute

> MARKEL ONAINDIA

Martxoaren 8a da bihar, Emakumeen Nazioarteko Eguna. Ospakizunetatik harago, mobilizatorako eguna izan ohi da, eta aurten protestarako arrazoi berri bat edukiko dute feministek: Espainiako abortuaren legearen erreforma. Mariano Rajoyren gobernuak 2010eko legea aldatu nahi du, eta abortatzeko eskubidea bi kasutarako bakarrik baimendu: emakumearen osasuna arrisku larrian dagoenerako eta bortxaketa baten biktima izan denerako. Lehenengo kasuan, abortua praktikatu den zentroaz kanpoko mediku bik egiaztatu beharko dute arriskua; bigarrenean, bortxaketatik salaketa ipini izana ezinbestekoa izango da. Gainerako kasu guztiak delitu izango dira: medikuentzat zigorra penala izango da, eta emakumeentzat administratiboa.

“Eskubidez, sexualitateaz, beste mundu bati buruz berbetan geunden. Eta honegatzat datoz orain?”. Mireia Delgado, Durangoko Bilgune Feministako kidearen berbak dira. Bere

ustez, atzerakada dakar erreforma asmoak, nahiz eta lortuta zegoena “panazea” izan ez: “Manifestazioetan orain 40 urteko lelo berdinak abesten dira”. Emakumeen erabakitzeko eskubidea azpiratzen dela dio:

Delgado: “Mundu guztiak eman ahal du iritzia, emakumeak izan ezik”

Lersundi: “Eskuman ideia bat dago, eta horrek hor jarraituko du erreforma onartu edo ez”

“Mundu guztiak eman ahal du iritzia, emakumeak izan ezik”. Abortuaren legearen erreforma, isolatuta barik, estrategia orokor batean kokatu du Delgadok. “Emakumeon gorputza kontrolatzeko beste neurri bat da. Emakumeon ugalketa gai-

tasuna kontrolatzen dute, sexualitatea, familia eredua, zer dagoen ondo eta zer txarto”.

Delgadoren iritziz, debekuen orde, beharrezkoa da sexualitatea beste era batera bizitzea. “Zergatik ez da hezkuntza indartzen, eta emakumeok euren gorputzaren jabe izan daitezela lan egiten?”.

Bilgune Feministako kideak dio sistema patriarkala “sukalderaino” sartzen dela konturatu orduko, eta kontuz ibili behar dela “sasi-berdintasunarekin”. Iritzi berekoa da Elorrioko Txoko Feministako Nerea Lersundi: “Berdintasun horretan bizi gaituzte, eta 2014an eskubideak lortzeko borrokan gabiltza”. Bere ustez, hainbat balio daude lege erreformaren atzean. “Zer dago erabaki honen guztiaren atzean? Abortua saihestea bakarrik ez behintzat. Eskuman ideia bat dago, eta horrek hor jarraituko du erreforma onartu edo ez. Debatea bera ez delako abortua, emakumea baizik”.

Horren aurrean, pertsona guztien borroka eta kritiko

izatea aldarrikatu ditu Lersundik: “Kritikoak izan behar dugu jasotzen dugunarekin, eta eskemak deseraiki”. Lan feministak ideiak astintzeko funtzioa betetzen duela uste du, eta lan horren balio pertsonala ere azpimarratu du.

Andereak elkarrean deia Durangoko Andereak elkarrean ere erantzuteko deia egin du. Erreforma “atzerapauso itzela” dela dio, eta “gutxiengoaren moralak gizarte osoari inposatzea” dakarrela. Osasun publikoan arazo larria eragingo duela uste du: “Debekuak debeku, beste garai batzuetan lez, haurdunaldia eten nahi duen emakumeak eten egingo du, baldintzak edozein izanda ere, eta abortu klandestinoek gora egingo dute”. Ondorio larrienak, baliabide gutxi dutenentzat dira: “Dirudunek ez dute arazorik edukiko ondo ordaindutako Londresko klinika pribatuetan abortatzeko”.

Abortatzea emakumeen eskubidea dela dio elkarrean, eta librea, doakoa eta kode penaltik kanpoko izan behar dela.

SEI HANKAKO MAHAIA**IDOIA AGORRIA**

PSE - EE



Martxoaren 8an, kontu asko aldarrikatzeko eta salatzen

Aurten, Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatuko dugu, eskubide eta askatasun arloan atzerakada historikoak izaten ari diren bitartean. Gogor salatu behar dugu PP alderdiaren gobernuak aurkeztu duen abortuaren legearen kontrarreformarako aurreproiektua, atzerapauso larria baitakar emakumeen eskubideei eta herritar guztien askatasunari begira.

Era berean, argi nabarmendu nahi dugu genero-indarkeriaren aurkako borroka egoera larrian dagoela, indarkeria mota horri aurre egiteko aurrekontuak murrizten ari direlako. Ozen salatu behar dugu Kode Penalaren lege erreformek eta Tokiko Erreformatik edukiz hustuko dutela Osoko Legea, eta biktimak babesik gabe utziko dituztela. Azken batean, Genero Indarkeriaren aurkako Osoko Legea erabat desegiten ari dira atzeko atetik.

Lan erreformaren, krisialdiaren eta PP alderdiaren politikaren ondorioz, emakumeak etxera itzultzen ari dira berriz. Izan ere, orain arte beti gora egin duen emakumeen jardura tasa atzera egiten ari da une honetan, lehenengo aldiz 30 urte baino gehiagotan. Iazko Martxoaren 8an baino okerrago gaude egun, emakumeek 82 egun gehiagotan egin behar baitute lan gizonen baino, azken horiek urtean duten ordainsari berbera jaso ahal izateko; aldizkako kontratu gehienak emakumeei dagozkielako, eta ordaindu gabeko lanaren %80 emakumeek betetzen dutelako. Hori ez da halabeharrendaren ondorioa: eskuineko alderdiek emakumeak behar dituzte, hezkuntzan, osasun arloan eta mendekotasunaren esparruan egiten ari diren murrizketen politiken ondorioz estatuak bete gabe uzten dituen zerbitzuak emakumeek bete ditzaten. Horregatik bidali nahi dituzte emakumeak etxera berriz. Dena dela, guk ahal dugun guztia egingo dugu hori galarazteko, eta, ildo horretan, datorren Martxoaren 8an kalera joko dugu berriz, hori salatzen. Aniamatu eta etorri gurekin salatzen.

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK
HURRENGO ERAIKUNTZA

Bixente Kapanaga, 19 behea - 946 816 673 - lurreta
www.zarateylexpe.com

Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
posta elektronikoa: jrueda@segurosbilbao.com

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxe: 946 816 403

> ZALDIBAR**Egitarau zabala, gaztetxearen 10 urteak ospatzeko****> I.E.**

Joan zen asteburuan, inauteriekin lotuta abiatu zuten Zaldibar-ko gaztetxearen 10. urteurrena ospatzeko egitaraua: DJen emanaldia eta mozorro lehiaketa izan ziren, esaterako. Atzo bete ziren 10 urte gaztetxea zabaldu zutela, eta merienda batez, bideo emanaldiagaz, eta poteo girotuagaz ospatu zuten.

Asteburu honetan ere hainbat ekintza izango dira Zaldibar-ko gaztetxearen 10. urteurrena ospatzeko. Gaur, horma irudia margotuko dute, 17:00etan hasita; eta 23:00etan, jolasen gaua egingo dute.

Martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunagaz bat egingo du Zaldibar-ko gaztetxeak, aldiz, bihar. Mosaiko jendetsua osatuko dute emakumeen esku-bideen alde, udaletxeak plazan. Gero, herri bazkarian batuko dira, eta familia argazkia egingo dute ondoren. Kontzertuak izango dituzte gauean gozagai: Bilbomatiks eta Extremoduroren kantak jotzen dituen Pepe Botika taldeek joko dute. Sagardotegira irteera egingo dute, bestalde, martxoaren 29an. Herriko tabernan eman daiteke izena.

> BERRIZ**Inbertsioen erdia inguru Iturritzan hobekuntzak egiteko erabiliko dute**

2014ko aurrekontuak “zerbitzuak mantentzeko eta hobetzeko” izango dira, alkatearen berbetan

> AMAIA UGALDE

2014ko aurrekontuak onartu ditu Berrizko udalbatzak. Aurten, iaz baino 451.902 euro gehiago izango ditu udalak, guztira, 5.548.902 euro. Udalkutxako diru sarrerari esker igo da batez ere aurrekontua. Inbertsioen atalean, iaz parte-hartze prozesuan bildutako hainbat proiektu sartu ditu udalbatzak; tartean, herriko kale nagusia, Iturritza, konpontzen hastea. EAJren aldeko botoekin, eta Bildu eta PSE-EEren abstentzioagaz egin dute aurrera aurrekontuek.

Herriko kale nagusia konpontzen hasteko 362.000 euro gorde dituzte. Irisgarritasun arloan hobekuntzak egin gura dituzte; zebra bideak altxatu, espaloiak zabaldu, eta trenbide ingurua hobetu, besteak beste. Obrak lau fasetan egitea aurreikusitako, eta 2014an fase bi amaitzea espero dute udal arduradunek.

2014rako inbertsio gehienak “herriko zerbitzuak mantentzeko eta hobetzeko” izango direla

azaldu du Orland Isoird alkateak. Iturritzako hobekuntzena, herritarrek iaz egindako parte-hartze batzarretan aipatutako gaietako bat da. Batzarrotan 60.000 euro nora bideratu eztabaidatu zuten, eta 30.000 euro herri ortuak atontzeko erabiltzea erabaki zuten, besteak beste. 60.000 euro horien barruan sartutako ekimenez gainera, batzarretan irtendako beste inbertsio batzuk ere onartu dituzte azkenean: Iturritzako lanak eta auzoetan abiadura moteltzeko elementuak ipintzea, adibidez.

Aurten, berrikuntzen artean, mendi bizikleta ibilbide bat egingo dute, Iñaki Lejarretaren izena izango duena. Horretarako 6.000 euro erabiliko dituzte. Horretaz gainera, Kultur Etxerako proiektore digitala erosiko dute, 50.000 euro ordainduta.

Gizarte ongizate alorra

Gizarte ongizate alorrera iaz baino 22.000 euro gehiago bideratuko ditu Berrizko Udalak.



Lau fasetan egingo dituzte Berrizko kale nagusiko obrak.

Besteak beste, larrialdietako diru-laguntzetan egongo da igoera, iaz, aurreikusitakoa baino eskari gehiago egon zirelako.

Aurten ere, parte-hartzea

2013an legez, aurten aurrekontuak lantzeko parte-hartze prozesua antolatuko dute. “Urtez urte apustu horrekin jarraitzeko konpromisoa hartu dugu”, azaldu du Isoirdek. Bilduko Xabi

Zalduak foroak zabaltzea eta batzar gehiago egitea proposatu du. Legegintzaldi honetan Hiri-gintza Plana garatzeko premia ere aipatu du: “1992tik gaude plana berri bari, eta horrela gaitza da gauza garrantzitsuak garatzea. Urgenteak batzuetan ez du inportantea dena ikusten uzten”. PSE-EEko Francisco del Pinok hiru alderdien arteko elkarlana azpimarratu du.

> ABADIÑO**McDonald'sek uda honetarako zabaldu gura du hanburguesategia**

Abadiñoko Udalak obra lizentzia eman dio janari lasterreko enpresari

> JONE GUENETXEA

McDonald's enpresak lizentzia eskuratu du Abadiñoko Murruta auzoan eraiki nahi duen hanburguesategiko obrei ekiteko. Abadiñoko Udalak prentsa oharrean jakinarazi duenez, janari lasterreko enpresak 932.000 euroko inbertsioa egingo du Gráficas Berriz enpresa zegoen eraikinaren orubean. Bi pisuko hanburguesategia eraikiko du. Udalak aurreratu duenez,

McDonald'sek uda honetan gura ditu ateak zabaldu.

Lizentzia joan zen barikuan eman zion udalak, “behin espedienteak oniritzi guztiak jasota udaleko zerbitzu tekniko eta juridikoaren, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren eta Aldundiko Herri Lanetako Sailaren aldetik”. Jose Luis Navarro alkateak argitu duenez, “proiektu honek lege eskakizun guztiak betetzen ditu, eta hala

bermatzen dute udalaren zerbitzu tekniko eta juridikoen, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak”. Gaineratu duenez, “ezin dugu proiektu bat atzera bota janari mota bat gehiago edo gutxiago gustatzen zaigulako”.

Burger King parean

Burger King hanburguesategiak auzo berean, Eroskiren ondoan, zabalduko du laster bere hanburguesategia.

Webgune berrian ehundik gora tramite egin daitezke

BiscayTIC proiektuagaz bat eginda garatu dute gunea

> I.E.

Abadiñoko Udalak jakinarazi duenez, ehundik gora tramite egiteko baliatu ahalko dute herritarrek webgune berria: lan txikietarako baimenak lortzeko, espedienteak erregistratzeko, eta errolda eta egoitza eskariak egiteko, esaterako.

Bizkaiko Foru Aldundiaren BiscayTIC proiektuaren barruan berriztu du Abadiñoko Udalak www.abadiño.org helbidea, eta bertan, trami-teak azkarrago egiteko aukera eskainiko die herritarrei aurrerantzean. Webgunearen aukerak aprobetxatu ahal iza-

teko, erabiltzaileek Bizkaiko Aldundiaren doako posta elektronikoko kontua aktibatu behar dute (www.bizkaia.eu helbidean), eta nortasun agiri edo Gizarte Segurantzako txartel elektronikoa eskuratu.

Erabiltzaileek Bizkaiko Foru Aldundiaren doako posta kontu bat aktibatu beharko dute

Aurrekontu akordioa lortzeko borondatea adierazi du EAJk**> I.E.**

Prentsa oharra kaleratu du EAJk, Abadiñoko Udaleko aurrekontuen inguruan dituen lehenetsunak azaldu guran. “Herriak aurrera egin dezan, Abadiñok aurrekontua izatea” garrantzitsua dela azpimarratu dute idatzitako horretan jeltzaleek, eta “akordioa lortzeko borondatea” adierazi dute.

EAJren ustez, Zelaieta auzoaren urbanizazioari (saneamenduari, oinezkoen segurtasunari eta mugikortasunari) lehentasuna eman beharko litzaioke 2014ko udal aurrekontuetan.

Hezkuntzari lehentasuna

Aurrekontu horietan, bestalde, hezkuntzak lehentasuna eduki behar duela, eta ez dutela “gizarte ekintza murrizketarik onartuko” diote jeltzaleek.

Abadiñoko EAJk plan baten beharra nabarmendu du, Traña-Matierna auzoko hainbat plazaren urbanizazioa hobetzeko. Horretaz gainera, baserrietako saneamendua hobetzeko beharra ere azpimarratu dute jeltzaleek.

> MALLABIA**Film laburrak eta bideo-foruma astebururako****> JONE GEUNETXEA**

Ataun of the death eta *Joxean's hil eben* film labur ironiko eta historikoak proiektatuko dituzte gaur, 19:30ean, Mallabiko kultur etxean, Orraitio euskara elkarteak antolatuta. Trilogia honetako lehenengo bi lanetan zonbi eta banpieroekin batera karlistak eta jeltzaleak agertzen dira. Zientzialari karlista bik Zumalakarregi berpiztu gurako dute, eta egoera horretatik abiatuko da zeresan handia eman duten film labur hauen edukia.

Bideo-foruma

Martxoaren 8a dela-eta, Nahikari emakume elkarteak bideo-foruma antolatu du kultur etxean. *Criadas y señoras* filma da hitzordu honetan proiektatuko dutena. Filmak iradokitzen dituen gaien inguruko mahai ingurua egingo dute, ondoren. Berritasun arloan diharduen Murbide taldeko Jaione Valdesek zuzenduko du solasaldia. Emakume elkarteak arduradunek azaldu dutenez, urtean hiru bideo-forum antolatzen dituzte; azaroaren 25ean eta maiatzean prestatzen dituzte beste zita biak.

> OTXANDIO

115.000 euro gehiago, katastroa eguneratuta

Ondasun Higiezin Zergan aurreikusitakoa baino 115.000 euro gehiago jaso ditu udalak



Udalak bere gain hartu du katastroa eguneratzeko ardura.

> JOSEBA DERTEANO

Otxandio Udaletik jakinarazi dutenez, 2013. urteari dagozkion diru kontuak itxi berri dituzte, eta 239.536 euroko soberakin positiboa du udalak. Emaizta positibo horren arrazoi nagusia katastroa eguneratzeko egindako "lan mardula da", udal arduradunen esanetan.

Herriko etxebizitza batzuk gaur egungo katastroen balioetara ekartzen ari da Otxandio Udalak, eta altan eman barik zeuden ondasunak altan emateko tramiteak egiten. Lan hori guztia Bizkaiko Foru Aldundiagaz elkarlanean egin behar zuten, baina udalak berak hartu du eguneratzeko hori egiteko ar-

dura, "urtetan lan honek pilatu duen atzerapena, eta horrek udalaren ohiko sarreretan zuen eragina ikusita". Horrela, lan hori egin ostean, OHZn, Ondasun Higiezin gainera Zergan, aurreikusitakoa baino 115.000 euro gehiago batu du udalak.

Iaz ere emaitza positiboa izan zuten, baina aurtengo egoera iazkoa baino hobea da: "Udalaren gaur egungo zorpetze txikia dela-eta, soberakin hori ez dago zertan kredituak kitatzera bideratu, eta 2014. urtean behar denerako erabilgarri izango da kopurua".

Proiektuei bultzada

Aurreikusitako proiektuei bultzada berri bat emateko balio dezake soberakinak. Aurrekontuetan jaso arren, beste erakundeetako diru-laguntzen mende zeuden proiektuak (plaza eraberritzeko lehen fasea eta eskolan zein pilotalekuan biomasa galdara jartzeko proiektua) aurten garatu edo ez erabakitzerako orduan "autonomia handiagoz" jokatzeko modua eskaintzen dio udalari.

> GARAI

Bake epailea eta ordezkoa izendatuko dituzte

Garain erroldatuta egon beharko dute interesdunek

> MARKEL ONAINDIA

Garaiko bake epailea eta bere ordezkoa izendatzeko fasea hasi dute. Lau urterik behin aldatzen diren karguak dira, eta lehiaketa publiko bidez aukeratzeko dituzte. Udalaren oharra Bizkaiko Aldizkari Ofizialean agertzen

denetik aurrera, hamabost eguneko epea egongo da hautagaiak aurkezteko. Garain erroldatuta egon beharko dute interesdunek, eta udaletxean egin behar dute eskaera.

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren aginduz aldatzen dira

bake epailea eta ordezkoa. Baina iragarpena eta hautaketa udalaren esku geratzen dira. Prest agertzen diren herritarren artean zein aukeratu udalbatzar batean erabakiko dute. Gero, auzitegiari bidaliko dituzte proposamenak. Lagun biek Durangoko epaitegian hartuko dute kargua.

Udaleko ordezkariak azaldu dutenez, kargua bateragarria da beste lanpostu batzuekin. Ez, oster, alderdi politiko eta sindikatuetako ardurekin.

> DURANGALDEA ASTEON

Maiatzera atzeratu dute 'Con los pies en las nubes' musikaren estreinaldia

ANTZERKIA > Maiatzaren 4an ipini dute 'Con los pies en las nubes' musikaren hitzordu berria. La Papa taldearen eta L'atelier eskolaren lana da, eta San Agustinen estreinatuko da. Sarrerak aurretik erosteko bidea zabaldu du kulturguneak: Arte eta Historia Museoan erosi daitezke, martitzenetik barikura, 16:30etik 20:00etara; zapatuetan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; eta domeketan, 11:00etatik 14:00etara.

Madrilgo berrogei irakasleren bisita izan dute Maristetan

HEZKUNTZA > Atzo, Madrilgo hainbat ikastetxetako irakasleen bisita jaso zuten Durangoko San Jose Maristak ikastetxean. Bertan aplikatzen duten Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza metodologia ezagutu gura izan dute Madrilgo irakasleek, eta egun osoan metodo horren nondik norakoak azaltzen ibili dira Maristetako langileak.

Atxondoko gaztetxetik sagardotegira joateko aukera

SAGARDOTEGIRA IRTEERA > Martxoaren 22an sagardotegira joateko plana egin du Atxondoko gazte asanbladak. Honezkerro berrogei lagun animatu dira, eta oraindik lekua dago autobusean, gura duenak izena emateko. Martxoaren 22an, 11:00etan irtenko dira, eta 04:00etan ipini dute itzulera ordua. Gaztetxean bertan eman daiteke izena, arratsaldean.

Igor Elortza, Amets Arzallus eta Beñat Ugartetxea EHEK antolatutako bertso afarian

BERTSO AFARIA > Datorren barikuan, martxoak 14, bertso afaria egongo da Plateruena Kafe Antzokian, Durangoko Euskal Herrian Euskarazek antolatuta. Bertsoetan Igor Elortza, Amets Arzallus eta Beñat Ugartetxea ibiliko dira, eta Peru Magdalenak ipinitako gaiei erantzunango diete. 21:00etan hasiko da afaria. Txartelak Intxaurren eta Plateruenean daude salgai, 12 euroan. Eguena izango da tiketak erosteko azken eguna.

Zehaztapenak

Askotan irakurtzen dut, Julene Azpeitia udal sariketako argitalpenetan, urte bat baino gehiagotan, Julene Azpeitia zenbait ikastolatan maistra izan zela. Hori ez da zehatza, zeren eta, bai, Aizarnazabalen lehenengo, eta, gero, Zornotzako Dueda-San Migelen, Matienan eta Traña-Matienan eskola publikoetan jardun baitzuen. Argitu behar dena da, berarentzat "escuela", euskaraz "ikastola" zela. Kontuan izan gerra aurreko purismo pentsakerakoa zela eta, gainera, Diputazioak auzoetan eskolak jarri zituenean honela errotulatu zituela: "Bizkaia auzo ikastola / Escuela de barriada de Vizcaya", zeren eta euskal herrialde horrenak baitziren eta ez estatuarrenak; alegia, BizkaiaRENAK, ez BizkaiaKOAK soilik. Gerra ostean mailu eta zintzel frankistek ezabatu zituzten euskarazko testuak leku gehienetan, Mendiola eta Traña-Matienan. D^a Juliana egon zen Duedan ez, oraindik han euskaraz ere ikusi ahal da ikastola = escuela.

Beraz, eskola maistra izan zen Julene Azpeitia zumaiarra, ez guk, orain "ikastola" deitzen diogun horietakoa. Alda beza, hurrengoan, Durangoko Udalak ere.

Pilar Zubiaurreren senarra Izquierda Republicana zelako exiliatu behar izan zuten. Hemen gelditu bazen afusilatuko zuten, seguru asko, bere lagun min asko bezalaxe. Garaiko udaletxean izango da Ricardo Gutiérrez Abascalek niri egindako gutun bat. Komeni da bere ideologiaren zehaztapen hau, gaurko belaunaldiak gure historia ondo ezagutzeko.

Jose Luis Lizundia

Iritzia

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (farteak barne).

Berbaz

Urko Aristi | Eguraldi emankizunen arduraduna ETBn eta Tokikomeko presidentea | Ibarra, 1977

“Guztiok norabide berberean aritzeak sektorea indartzea ekarriko luke”

Urko Aristi euskarazko tokiko hedabideak, tartean ‘Anboto’, batzen dituen Tokikom elkarteko presidente izendatu berri dute; Euskal Telebistako eguraldi emankizunen arduraduna izateaz gainera, urteak daramatza Nafarroako Mailope aldizkarirako lanean



> GOIENA

Zelan hartu duzu kargu berria? Gogotsu. Erronka handia da, baina inguruan sumatzen dudan energiak eta ilusioak aurrera egitera bultzatzen nau. Euskalgintza eta herrigintza, biak uztartzen ditu Tokikom-ek, eta horregatik asebetetzen nau. Eraikuntza horretan ezertan lagundu ahal badut, egin egingo dut.

Noiz, zeinek eta zelan proposatu zizuten kargurako?

Mikel Irizarrek berak egin zidan proposamena, eta ederki asmatu nola egin gainera. Euskal Herrian, oro har, baina Nafarroan bereziki badira hainbat proiektu interesgarri, eta arduraz eta koherentziaz jokatuta, ezin ezezkorik eman.

Ez zenuen zalantzarik izan?

Bai, izan nituen. Batetik, nire lana eta ardura berria biak uztartzerik izango ote nituen, liberatu gabea izanda, nahikoa astirik izango ote nuen... Baina Mailopen 20 bat urtez aritu izan gara asteburuetan, hala nola, aldizkaria ateratzen, eta lanalditik aparteko lanak, militantziak eskatutakoak nolakoak diren badakit jada. Hitz potoloetan baino, egunerokoak erakutsi

digu guri saretzearen beharra. Eta, bestetik, hain zuzen, jendeak goiko solairuarekin identifikatuegia ote ninduen... Azkenean horri buelta eman eta pentsatu nahi izan dut bi solairuetan arituta, bien arteko igogailuak erraztuko dituela horrek.

Zein da Tokikomeko presidentearen erronkarik nagusia?

Hazia erein dugu, eta zuhaitza ari da koskortzen. Orain enborra zuzentzen izango dugu lana, eta dagoeneko hasi diren fruituak bildu, haiei azukrea botata, eta konpota egin. Oinarriak ezarri ditugu. Bai sektoreak, bai erakundeek, onartu dute gure solaskidetza. Gure burua ezagutarazten aritu behar izan dugu

“

Egoera zailean gaude Nafarroako komunikabideok; ezin ahaztuko dugu jada batzuk itxi behar izan direla”

bi urte hauetan, eta bide hori ereinda, orain etxe barrukoak ere txukunduko ditugu.

Tokikomen sorreran ezarritako helburuak betetzen ari dira?

Bai, inolako zalantzarik gabe. Duela bi urte gauden puntuan egongo ginela esango baligute, beharbada ez genuke sinistu ere egingo. Sorrerako unean argi genuen denborak erakusten bazuen Tokikom alferrikakoa zela, ez genuela horretan jarraituko. Denborak erakutsi digu, ordea, zentzua izan baduela, eta uste genuen moduan, guztiz beharrezkoa dela.

Zelan eman daiteke elkarlan hori, tokiko hedabideen aniztasuna kontuan izanda?

Ahulen arteko batasunaz eta indarrak aritzen gara gu maiz. Norberak berean dituen zailtasunak elkar hartuta gaintzen errazagoak direla, alegia. Auzolana. Hori gauzatzeko, egun, biderik eraginkorrena plataforma digitalarena dela uste dugu, beste euskarri batzuetan baino bideragarriagoa eta egingarriagoa dela uste dugulako. Eskualdekako atariak batuko dituen atari bakar batek aukera anitz ematen du: agenda bateratua, Euskal Herri osorako gida komertziala, albiste

trukaketa... Gero norberak berean erabili ahalko dituenak, eta sarearen bidez, etxeko atetik harago ezagutarazi ahal dituenak.

Plataforma berdinez hainbat webgune bultzatu dituzue, tartean ‘anboto.org’ berria. Durangaldekoaren ostean, beste batzuk etorriko dira?

Oraintxe bertan bost dira. Goiena, Uriola, Tolosako Ataria, Guaixe eta ‘Anboto.org’. Eta bai, horiek sortutako enbor beretik etorriko dira besteak... Hainbat saiakera badira han eta hemen, eta, besteak beste, balio simbolikoa duten batzuk ere bai: Araban eta Nafarroan, esate baterako.

Tokiko hedabideen arteko eta maila nazionalako euskarazko hedabideen arteko elkarlana ere bultzatu nahi duzue.

Hori da bide bakarra. Alferrriko liskarretan aritu beharrean, guztiak ere norabide berberean ari garenez, batera arraun egitea. Sektorearen indartzea ekarriko du horrek.

Euskadi Irratiarekin bezala, Euskal Telebistarekin ere antzeko zerbait egin daitekeela uste duzu?

Bai, noski! Telebistan beti proze-

su guztiak geldoagoak izan ohi dira, mantsoagoak, baina irratikoak erakutsi du elkarkidetzaren posible bezain aberatsa dela. Nola, noiz eta non finkatzea baino ez da falta. Bi solairuen arteko igogailu horiek finkatu. Baldintza teknikoak konplexuagoak dira akaso telebistaren kasuan, baina egin egingo dugu. Ziur!

Zein da Nafarroan euskarazko tokiko hedabideen egoera?

Egoera zailean gaude Nafarroako komunikabideok. Ezin ahaztuko dugu jada batzuk itxi behar izan direla: Ttipi Ttapa telebista, Esan Erran irratia, Beleixe irratia... Eta beste batzuk kinka larrian gaude. Aurrean nor dugun badakigu: Nafarroako Gobernua. Gurea dena ukatu egiten digu, eta aspaldian dirulaguntzak kendu egin dizkigu. Baina, era berean, esango nuke horrek indartu eta sendotu egin gaituela. Gobernuaren enbidoari hordagoarekin erantzun dion guk. Horrek batzera eraman gaitu, jabetu garelako horrela baino ez dugula aurrera egingo. Hamaikagarren makilakada jaso, eta, halere, borrokan jarraitzeko grina duen lagun asko da Nafarroan zorionez.

Eguraldi kontuetan murgilduta zaude ETBn. Zergatik erakartzen du horrenbeste ikus-entzulea eguraldiak?

Bai lanerako, bai aisialdirako, ezinbestekoa dugulako eguraldiaren berri jakitea. Gure aldatzean ere eragina izan ohi du. Eta, gainera, euskaldun guztiok badugu meteorologo txiki bat gure barruan... Eta tira, produktu txukuna egiten dugulako ere izango da akaso, ezta? [Barrez].

Hekimen, euskarazko hedabideen elkarteko parte ere bada Tokikom. Gustura?

Bai, oso. Hori da gure diskurtsoan eta gure asmoetan ongi gabilzanaren adibide. Sareak josi behar ditugu, norabide guztietan, eta orduan eta elkargune izan, orduan eta aberatsago eta emankorrago izango da gure lana. Hekimenen barruan badugu pisua, gainerakoek onartu dute gure solaskidetza, eta keinu politik izan dira, lehendakaritzaren gure esku uztearenaren modukoak. Bide onean goazela guztiok, alegia.

Haizea Barcenilla | Lezo (Gipuzkoa), 33 urte. Artearen historialaria, kritikaria eta komisarioa |

“Artearen historia oso gogorra izan da emakumeagaz, eta hala da, oraindik”

Durangoko Artea Ezaupide zikloaren barruan, berbaldia eskainiko du, egunean, Barcenillak

> ITSASO ESTEBAN

Durangon eskainiko duzun hitzaldiaren izenburuan esaten denez, emakume artistak eta euren lana ikustezinak izan dira, eta oraindik ere horrela dira. Azken urteetan egoera hobetu dela ukatu ezin den arren, oraindik ere emakumezko artisten ikusgarritasuna oso txikia da. Harrigarria da ikustea zenbaterik ikasten duten Arte Ederak edo Artearen Historia, eta zein gutxi iristen diren profesionalak izatera. Horretaz guztiaz ariko naiz Durangoko berbaldian.

Arteari begiratzeko, genero ikuspegi hartzen duzu aintzat. Bai, egiten ditudan kritiketan askotan agertzen da gai hori. Antolatzen ditudan erakusketak ez dira beti feminismoagaz loturikoak, baina beti saiatzen naiz emakumeak presente dauden lanak kontuan hartzen, esaterako. Orokorrean, baina feminismitik dihardut, bai.

Unibertsitateko irakasle ere bazara. Ikuspegi feministatik diharduzu irakasle ere?

Antzinako artearen historia irakasten dut, eta saiatzen naiz gaur egungo berrirakurketa feministei lekua egiten nire eskoletan. Horiek erakusten dute beste garai batzuetako ikonografia ikuspegi patriarkal eta kolonialista batetik egin zela. Niri irakatsi zidaten historia guztiz patriarkala da: emakumeen presentziarik ez dago.

Zein da hitzaldiaren tesia?

Euskal Herrian zer momentutan gauden azalduko dut, eta, nire ustez, zeintzuk diren oinarritzko arazoak. Zer ikertu behar genukeen ere proposatuko dut. 60ko hamarkadatik gaur egunera arteko emakume artistak berreskuratu behar ditugu; izan ere, guztiz ilunetan geratu da askoren lana. Ikerketa lan handia egin behar da arlo horretan. Bestalde, azken hamar urteetan ikasketak bukatu dituztenek zer zailtasun aurkitu duten, eta artista ez izatea erabaki dutenek zergatik egin duten hautu hori

aztertu behar genuke. Horrela ulertuko dugu zein den arazoa.

Ikasketek profesiora dagoen hutsunearen daturik badago?

2.008. urteko datuak dauzkagu, esaterako: Arte Ederretan ikasleen bi heren emakumezkoak ziren, eta heren bat gizonak. Gaur egun antzeko datuak dauzkagula esatera ausartuko nintzateke. Artearen Historian emakumezkoen proportzioa are handiagoa da. Emakume asko ez da saiatu ere egiten, ikasketak amaituta, artista izaten. Askok hezkuntzara, errestauraziora eta bestelako eginkizunetara pasatzen dira. Egoera apur bat hobetu da, baina emakume askorentzat oso zaila da gaur egun, oraindik, euren lana erakustea.

Denok gara horren erantzule.

Gizartea bere osotasunean da oso patriarkala, eta esparru guztietan bezala gertatu da kulturaren ere. Jenioaren ideiak ere kalte handia eragin du: horren arabera uste da jenialtasuna jaiotzaz geroztik dugun zerbait dela, eta historikoki kontsideratu izan da emakumeak ez direla gai bikaintasunera iristeko. Gainera, amatasunari edo lanari loturiko erabakiak hartu behar izan ditu emakumeak: bata edo bestea hautatu behar izan du. Hori duela oso gutxi hasi da aldatzen, eta batzuen buruan oraindik ez da aldaketa hori gertatu.

Erabakitze boterea dutenak dira aldatu ez diren asko.

Bai, esaterako, adibide lazgarria Bilboko Arte Ederren Museoarena da. Azken hamar urteetan museo horrek ez dio bakarkako erakusketa bat bera ere eskaini emakumezko artista bati. 48 egin dituzte, eta ez da emakumezko bat ere agertu. Denon diruagaz ordaindutako erakunde publikoa da Arte Ederren Museo, eta tamalgarria da inork horren kontra ezer ez esatea. Badakigu Guggenheimek ez duela hemengo artea erakusten, baina Euskal Herrian artearen erreferentzia den museoak ez du inoiz



Antzinako artearen historia irakasten du Haizea Barcenillak Euskal Herriko Unibertsitatean.

emakume baten lana erakutsi. Nola ezagutuko du jendeak emakumearen lana?

Errealitate hori plazaratzeko egin daiteke presiorik?

Uste dut baietz. Artearen munduko hainbat arlotan dihardugun emakumeok plataforma batean elkartu ginen, eta 2008. urtean lehen aipaturiko datu horiek plazaratu genituen. Adibidez, guzti honi buruzko gutun bat idatzi diogu Lehendakariari, eta Arartekoarekin ere egon izan gara.

Erantzunik jaso duzue?

Ez. Denek diote tamalgarria dela egoera, baina ez dago erabaki edo eragin zuzenik.

Zein uste duzu dela gauzak hobetzeko bidea?

Hainbat esparrutan egin behar dugu lan. Batetik, hor daude Koldo Mitxelena edo Montehermoso proiektuak: emakumezkoen lana erakusten duten erakundeak. Parekidetasunaren legea ere hor dago: duela hamar urtetik dago lege hori, eta ez da betearazten (Bilboko Arte Ederren Museoaren kasuak erakusten duen moduan). Uste dut oso inportantea dela epe luzerako ikerketak eta proiektuak gauzatea, gizartearen kontzientziazioa bultzatzeko. Arazo bat da, esaterako, aipaturikoak bezalako datuak kaleratzen ditugunean jendeak esatea: “beno, agian kontua da ez dagoela emakume artista onik, ez?”. Hori astakeria itzela da. Gizarte mailan lan egin behar da, ikertu behar

da emakumeen ikusgarritasun ezaren arrazoiak zeintzuk diren jakiteko.

Urte osoa ematen duzue lan horretan, nahiz eta batzuetan dirudien emakumea martxoak 8 datoren inguruan bakarrik dagoela kulturalan.

Bi asteotan hiru hitzaldi emango ditut gai honen inguruan, eta gero, hurrengo martxora arte inork ez du honetaz hitzik egingo. Oso ondo dago emakumearen inguruko gaiak lantzea, baina daukagun arazoa oso larria da. Esaterako, Arte Ederren Museoan galdetzen baduzu, esango dizute hiru erakusketa antolatuta dituztela, emakumeak protagonista zirenak: *Emakumeak Erdi Aroan* izenekoa, arte feministari buruzkoa, eta emakume inpresionistari buruzkoa. Horietan emakumea gaia da, ez subjektua. Eta berdin gertatzen da egun hauen inguruko programazioekin ere. Emakumea gai bilakatzen da, *ihesa* edo *pobrezia* izan daitezkeen eran. Eta emakumea ez da gai bat, subjektua da: gizartearen erdia da!

Zuhar Iruretagoien artistak zabaldu zuen hitzaldi zikloa, atzo. ‘Harriak poltsikoan’ izeneko berbaldia eskaini zuen. Izenburu esanguratsua.

Beti da lan bikoitza emakume batentzat aurrera egitea. Askok gertatzen zaigu desberdintasunak apurtzeko. Artearen Historia oso gogorra izan da emakumearekin, eta oraindik ere horrela da: erakusketak egiten direnean emakumeak historiza-

BERBALDIAK

* Durangoko Arte eta Historia Museoan, 19.00etan

MARTXOAK 13

Haizea Barcenilla:

‘Exponer y exponerse: la visibilidad de las mujeres artistas’.

MARTXOAK 27

Miren Jaio (arte kritikaria):

‘Esenatokia –zatozte nirekin, arren– aldatua zen’.



tuta, guztiz alboratzen dira euren zailtasunak eta arrazoi pertsonalak. Orain gutxira arte, adibidez, ezkondu ezean, bere lanaren bidez bizirauteko zailtasun handiak zituzten emakumeek. Esparru pribatuko gauzak dira hori bezalakoak, baina feminismoak defendatzen duen gisara, arlo pribatuko ere politikoa da, eta bizitzak baldintzatzen ditu.

> MUSIKA

Plateruenean estreinatuko du Doctor Deseok 'Busco en tus labios' diskoa

Gaur, 22:30ean ariko da Doctor Deseo taldea, Durangoko Plateruena antzokian

> ITSASO ESTEBAN

Duragon hasiko du Doctor Deseo Bilboko taldeak *Busco en tus labios*. *Lo mejor del Deseo* izeneko disko berria aurkezteko bira, gaur. Datozen asteetarako lotuta dituzte kontzertu bina Donostian eta Bilbon, eta Gasteizen, Atarrabian, Bartzelonan eta Madrilen ere joko dute.

Aurreko diskoaren aurkezpen-erako hiriburuetako antzokietan eskaini zituzten kontzertuen "antitesia" izango ei da *Busco en tus labios* bira; Bilboko taldearen ibilbidearen aniztasuna islatuko duen bira. Taldeak aurreratu duenez, hasiera biziko kontzertuak izango dira bira berrikoak, eta, dantzarako disko musikaz, jairako gonbita luzatuta amaituko dira. Baina taldearen pop eta kabaret ukituko kantak ere entzungo dira.

Francis Diezen, taldeko ari-maren, ahotsari eta gitarrari laguntzen lau musikari ariko dira

zuzenekoan: gitarragaz, teklatuagaz, baxuagaz eta bateriagaz lagunduko diote Francisi.

Disko-liburua da *Busco en tus labios*. *Lo mejor del Deseo*, eta otsail amaieran aurkeztu berri dute: 23 kanta, ilustrazioak, eta 2012an hainbat antzokitan eskaini zuten biran egindako

Aurreko diskoaren antzokietako aurkezpen biraren "antitesia" izango ei da bira hau

Durangoko Bideografik ekoiztetxeak grabaturiko dokumentala aurkeztu berri du Doctor Deseok

grabazioak bildu dituzte bertan. Hiru kanta berri daude diskoan: *Equivocarse hasta acertar*, *Aunque siga siendo de noche*, eta *Busco en tus labios* kantaren bertsiok berria. Hain zuen, diskoari izena ematen dion kantu horrekin lehiaketa bat irabazita hasi zen Doctor Deseo, 1986. urtean.




'vimeo.com/tag:doctor+deseo' helbidean dago dokumentalaren trailerra ikusgai.

Disko berriagaz, Durangoko Bideografik ekoiztetxeak grabaturiko dokumentala (50 minutukoa) ere aurkeztu berri du Doctor Deseok. Taldea gertutik ezagutzen duten musikari, idazle, kazetari eta artistak agertzen dira bideoan –Edorta Jimenez edo Joseba Martin, kasurako–. Doctor Deseoren inguruko irizkiak agertzen dituzte filmean.

Zaleek bideoklipa egiten laguntzeko deialdia zabaldu du, asteon taldeak. *Musu* kontzeptuagaz ulertzen dutena gehienez ere 10 segundoko bideo batean islatu dezatela eskatu die zaleei.

GEURE DURANGALDEA

MIREN AMURIZA
Ikaslea



Seinale ona

Ederra da zinemako argiak itzali eta apurka-apurka beste lurralde, egoera, gorputz edo pentsamendu batzuetan barneratzea; baita bide batez norberetatik urruntzea ere. Lantzean behin izaten dira dena delakoagatik oihartzuna lortu eta takiletara ilara luzeak ekartzen dituzten filmak. Baina, oro har, hirietan, herri handi zein txikietan, aretoak ia hutsik egoten dira: bikote pare bat, zenbait zinefilo eta iluntzerako plan hoberik izan ez duen bakanen bat. Antzerkigintza ez dut horrenbeste ezagutzen, baina uste dut gehiago izango direla han ere giro intimoko emanaldiak, jendetza handiari eskainiak baino. Maiz jartzen naiz pantailaren atzean zein teloiaren aurrean aritzen diren aktoreen larruan: zer sentitzen ote dute prestakuntzetan orduak eta orduak egin ondoren, ikusle gutxi batzuk gerturatzen zaizkienean? Edo are, sarrera nahikoa saldu ez, eta ekitaldia bertan behera gelditu denean?

Bestalde, nola eskatuko diozu langabezia dagoen gazteari, film bat ikusteko zortzi euro ordaintzea, etxean debalde daukanean? Edo nola eraman nerabe bat zinemara bi ordurako, whatsapp-etik jasotzen dituen minutu bitik gorako bideoak luzeak iruditzen bazaizkio?

Lehenago batean hamasei urteko gazte bat libururen bat irakurtzeko konbentzitzen saiatu nintzen, eta argumentu barik utzi ninduen. Belaunaldi berriak datoz eta eurekin batera sortzaileen beldurrak, krisiak, hutsuneak, gogoetak... Seinale ona; bizirik gaude.

> ERAKUSKETA

Jesus Lizasok zuragaz egindako eskulturak, Durangoko Museoan

Martxoaren 30era arte izango da erakusketa zabalik



Besteak beste, Florentzian edo Berlingen erakutsitakoak dira lanak.

> I.E.

Eguaztenean inauguratu zuten Durangoko Arte eta Historia Museoan ikusgai dagoen *Ortotropiak-Lan berriak* erakusketa. Martxoaren 30era arte egongo da, Durangon, eskulturen bilduma ikusgai. Jesus Lizasok (Barakaldo, 1961) azken urteotan egindako lanak daude erakusketa honetan bilduta. Besteak beste, Florentzian edo Berlingen erakutsitakoak.

Zurez egindakoak dira eskultura guztiak. Hain zuzen, artistak bere langaiagaz, hau da, materialagaz daukan harremanak ematen dio erakusketari izena. Fisika arloko terminoa da *ortotropia*, eta materialen portaera elastikoari egiten dio erreferentzia; zurari eragiteko moduek aldatu egiten dute bere malgutasuna.

Termino zientifiko hori hartu du Jesus Lizasok azkenaldian jorratu duen bideari izena emateko, "arau horrek ondo azal-

tzen baitu artistak zurarekin ezarri duen hartu-emana".

Azken emaitza artistaren nahiaren arabera den arren, materialak berezko duen izaerak ere eragina du azken emaitza horretan: sarri, egilea desbideratu egiten da aurreikusita zuten horretatik.

Lanbide Heziketaren bidetik jo zuten Lizasok, metalaren ar-

Lanbide Heziketaren bidetik jo zuten Lizasok, metalaren arloan; eta aroztegi batean jardun zen lanean

loan, eta aroztegi batean jardun zen lanean. Zuragaz ez ezik, zeramikagaz ere jardun izan du. Bizkaiko hainbat herritako plazetako eskultura publikoak berak egin ditu.

Histrión teatro
Juana la loca,
la reina que
no quiso reinar
Martxoaren 13an - 20:30ean
San Agustín KULTUR GUINEA
DURANGOKO UDALA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net

MARTXOAK 7 - 22:30ean 15/18 euro
DOCTOR DESEO
DISKO BERRIAREN AURKEZPENA

MARTXOAK 8 - 19:30ean DOAN
EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA
JAIALDIA - BATUKADA - TXALAPARTA - ANIMAZIOA -
AFRIKAKO DANTZAK - KONZERTUA BAXUKO TALDEAREKIN

MARTXOAK 15 - 22:00etan 10/12 euro
GARI + JABIER MUGURUZA
MUSIKA KONZERTUA

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

Hemen agertu
gura badozu
deitu!

946 217 902



Inprimagailuko kartutxoetan %70 aurrezteko modua dago

Berrerabilitako tinta-kartutxoak eta tonerrak ditu, besteak beste, Color Plus dendak; enpresa eta partikularrentzako zerbitzu teknikoa ere eskaintzen du

> AMAIA UGALDE

Durangon, San Ignazio auzunean dago denda. Inpresorak dauzkate, tinta-kartutxoak, papera eta ordenagailuentzako hainbat osagarri dituzte salgai. Tinten alorrean, marka originaleraino gainera, bateragarriak edo berrerabilitakoak daude Color Plusen; horregatik, ohiko kartutxoak eta tonerrak baino merkeagoak erosi daitezke bertan.

Kartutxoek eta tonerrek bitzita bat baino gehiago izan dezakete, behin tintaz hustu ostean, eta hori da azken batean tinta bateragarrien oina-

Berriro betetako karkasak merkeago irteten dira; "kasu batzuetan originalak baino %70 merkeago"

ria. Tinten karkasak tonerrak eta kartutxoak egiten dituzten lantegietara eroan, eta bertan berriro betetzen dituzte. Aitor Goiti Durangoko Color Plusen arduradunak esan duenez, "tinta bera ez da garestia; karkasa eta inprimagailuaren tinta bi-

deratzeko sistema da garestia". Horregatik, berriro betetako karkasak merkeago irteten dira; "kasu batzuetan originalak baino %70 merkeagoak dira".

Merkatuko tinta-kartutxo originalen %80 birziklatuta daude: 3.000 erreferentzia baino gehiago daude. "Modelo zaharrenak agian ez dira egongo, baina modelo berri guztiekin bateragarriak direnak badaude".

Zerbitzu teknikoa

Denda izateaz gainera, Color Plusek enpresa eta partikularrentzako zerbitzu teknikoa

eskaintzen du. Enpresei begira, eskaintza berezia egiten dute; hilean 3.000 kopia baino gehiago ateratzen dituzten enpresek inprimagailua eroan, eta, gero, ordaintza kopien arabera egiten dute hileroko, alokatuta egongo

Hilean 3.000 kopia baino gehiago egiten dituzten enpresek kopien arabera ordaintzeko aukera dute

"Esaten dute berrerabilitako tintek makina zikindu eta apurtu egiten dutela, baina hori ez da egia"

balitz moduan: "Kopien kostua ordainduko dute enpresek, eta prezio horretan sartzen dira makinaren kostua, mantentze-lanak, eta kartutxo edo toner bateragarriak", azaldu du Goitik.

Birziklapena eta mitoak

Berrerabilitako kartutxoaren inguruan "gezur asko" dagoela nabarmendu du Aitor Goitik: "Askok esaten dute tinta horiek makina zikindu eta apurtzen dutela, baina hori ez da egia". Norbaiti hori pasatu bazaio, "zorte txarra izan duelako da". Tinta betetzerakoan, kalitate sistema barik egingo zutela uste du Goitik: "Kartutxoak independentea da makinaren sistemarekiko".

Inprimagailuen munduan, zerbait erosterakoan, aukera asko daudela nabarmendu du Goitik. "Kontuan eduki behar da zer eta zenbat inprimatu behar duzun". Onena, dendara hurrertzea, galdetzea eta probatzea da.



**Eskuratu %70eko
beherapena
zure tinta
kartutxoetan!**

**TONER - TINTA
INFORMATIKA
GAIK
INPRIMAGAILUAK**

**Color Plus
Durango
San Ignazio
auzunea, 1**



COLOR
plus
para impresionarte

> MUSIKA

Bakarkako bidean 10 urte daramatzala ospatzeko bira abiatuko du Etxek

Bere herriko Hiltegixe gaztetxean, gaur hasiko du musikari berriztarrak 10. urteurreneko bira; Iban Gurrutxagak lagunduta, akustikoan ariko da



> ITSASO ESTEBAN

Iñaki Etxezarraga *Etxe* berriztarrak bakarlarari moduan hasi zela hamarkada bat beteko da aurten, eta bira abiatuko du, gaur, urtemuga hori ospatzeko. Berrizko Hiltegixe gaztetxean hasiko da, eta ekainean Berrizko San Pedro jaietan zerbait berezia eskainiz amaitu gura du.

Urte berezia izan zen 2.004. ena, eta *Etxeren* ibilbidean leku bereziak dira bi horiek: San Pedro jaietan, Berrizko txosnaguneko egitarauaren barruan jo zuen lehenengoz; eta Berrizko Gaztetxeko Aldapa maketa lehiaketa irabazi zuen azaroan. "Aldapa izan nuen bakarlarari moduan hasteko bultzada, horre-

kin etorri zen lehenengo diskoa, gero bigarrena, hirugarrena..."

Azken urte bietan oso gutxi aritu da zuzenean *Etxe*: "Ilusio handirik ere ez dut izan. 2011n bakarlarari moduan zein Triki-zio taldeagaz ibili nintzen, Baga Biga diskoetxearen eskutik. Triki-zio eta Baga Bigaren artean arazoak izan ziren, desadostasun handiak izan genituen. Taldearen zein nire kalterako izan zen dena. Orduan, guztiz aldenut nintzen diskoetxearengandik".

Azkenaldian, inoiz ez bezala, alboratuta izan du musika *Etxek*: "Banekien inork ez zidala deituko, baina ni ere ez naiz mugitu kontzertuak lortzeko; sei hilabetez zorrotik atera barik

eduki dut gitarra, etxean jotzeko gogorik ere ez dut eduki".

"Burutik pasatu zait kantatzeari uztea ere, baina erabaki dut hau momentu ona dela 'hemen nago' esan, eta ahal beste jotzeko". Inguruko jendeak konbentzitu du aurrera egiteko, amorerik ez emateko.

Ilusioa berreskuratu du Etxezarragak. Berriztarraren arabera, Su Ta Garren azken diskoak izan du horretan zerikusirik: *Bizirik gaude* oparitu zioten aseturuan heldu zion gitarrari, eta berreskuratu zuen grina.

Gaur hasiko duen birako zuzenekoetan, *Etxeren* ahotsa eta gitarra, eta Iban Gurrutxagaren gitarra izango dira protagonis-

tak: azken diskoa kaleratu zuteneko formazioa ariko da, beraz.

Berriztarrak kanta berriren batzuk ere badauzkan arren, bira honetako kontzertuetan orain arteko kantuak gura ditu oinarri hartu. "Azkena, *Haize berri bat*, kaleratu dudana diskorik onena dela uste dut, eta ez diot behar besteko zukurik atera". Oso pozik dago Gurrutxagaz lortu duen lankidetzagaz: "Nik kantuak sortzen ditut; Iban musikari profesionala da, eta nire sorkuntzak biribiltzen ditu". Aurrerantzean ere bien artean zerbait egingo dutela uste du berriztarrak: "Izan liteke lan oso bat zein kantu solteak".

Disko bat kaleratzea ez du beharrezko ikusten: "Inbertsio handia delako, eta jendeak gero eta gehiago Internet bidez entzuten duelako musika. Kantuak grabatu eta gauza berriak eskaintzea inportantea da, baina ez du zertan disko forma izan".

Diskoaren alternatiba izan daitezkeen aukerak buruan darabiltza *Etxek*: "Kantuak gutxinaka-gutxinaka grabatu, eta Interneten eskaintzea, adibidez". Baina urte hau amaitu arte ez diote horri ekingo. Bira amaitzean hartuko dute erabakia.

> Areto txikietan, akustikoan

Gaur abiatuko duen bira honetan, "leku txikietan, eta akustikoan" aritzeko hautua egin du *Etxek*: "Formatu oso gozoa da; gitarrista bi eta ahots bat edozein tabernatan sartu ditzakezu, kostu txikiagoa du, musikariontzat ere oso eroso da, eta jendearekin gertuagoko harremana sortzen da, informagoa". Berak zuzenean eskaintzen duena

formatu honetan askoz hobeto dagoela uste du berriztarrak.

Taldeak lagunduta jardutea zer den probatu ostean, hasieran egin zuenera bueltatzea da ideia: "Kontzertuak errazago topatzen dira, jendeak hobeto hartzen zaitu, eurekin harreman askoz zuzenagoa daukazu, eta frustrazio gutxiago dago".

SGAE elkartearen *Artistas en Ruta* programazioagaz ekin zion akustikoak eskaintzeari *Etxek*. Ez dauka ahazteko, programazio horren barruan, Segoviako herri txiki batean afalosteko emanaldian eskaintako kontzertua: "Ez zen entzule asko egon, eta kantuetan esaten dudana ez zuten ulertzen, baina jendea ni entzuten adi zegoela ikustea, eta amaitzean nire musikak barruan eragin ziela entzutea oso betegarria izan zen".

> Sorkuntza berria: heldua

Orain, estilo aldetik kantu "oso desberdinak" sortzen dabil Etxezarraga. "Mezu aldetik nahiko kritikoak. Izan ere, sentitzen dut traba asko ipini dizkidatela, edo gehiegi fidatu naitzela behar ez nuen jendearekin. Amorrur hori kantuetan islatzen dut. Nire lana ez diodala inori oparituko erabaki dut: diskoetxeak eta managerrak albo batera utzita egingo dut aurrera".

Sortzerakoan, kantak akustikoan eskainiko dituela oso presente dauka. Heldutasunagaz eta "gauzak lasaiago hartuta", indarrak gehiago neurtzen dituela ere badio *Etxek*. "Iban dago nire bizkartzain orain, eta bere ekarpenak asko aberasten du nire sorkuntza. Formula ego-kia lortu dugu".

> BERTSOLARITZA

'Ez da kasualitatea' bertso saio musikatu eta feminista, Berrizen

Martxoaren 14an eskainiko dute, 20:30ean hasita

> I.E.

Lau bertsolari eta musikari bi ariko dira, martxoaren 14an, 20:30ean hasita, Berrizko Kultur Etxean, taula gainetik: Uxue Alberdi, Onintza Enbeita, Alaia Martin eta Miren Amuriza bertsolariak, eta Eneko Sierra saxofonistak eta Ixak Arruti gitarristak dihardute *Ez da kasualitatea* ikuskizunean. Maite Berriozabal berriztarrak emandako gaiei erantzunago diete Berrizko emanaldian. Umorea, jolasa, generoari buruzko go-goetak, emakumeen arteko konplizitate, musika eta bertsoa uztartuko dituzte saioan.

Ikuskizunaren sortzaileek ekimenaren izenburuagaz ere adierazten dutenez, azken urteetan bertsolaritzan emakumeak

espazio handia irabazi duen arren, oraindik ere, zorritzarrez, ez da kasualitatea bertso saio baten kartelean emakumeen izenak bakarrik agertzea.

Miren Amuriza, Uxue Alberdi, Onintza Enbeita eta Alaia Martin ariko dira emanaldian, bertsotan

Sortzaileen nahia, berandu gabe, emakumeak bakarrik kantari diharduten saioak, berez, urteko edozein egunetan eta pentsatu gabe antolatzea litzateke. Bitartean intentzio osoz eta argiz dihardute.

> EMANALDIK

Emakumeak protagonista, Iturri, film dokumentalean eta erakusketan

Argazki erakusketa eta 'Rafea eta eguzkia' filma, martxoan, Elorrioren ikusgai

> I.E.

Emakume kirolarien irudiak bildu dituzte Elorrioko Iturri kultur etxeko argazki erakusketan. BBK Fundazioak babesurikoa da erakusketa, eta emakume kirolari horiei omenaldia egiteko helburuz antolatu dute. Martxoaren 12ra arte izango da erakusketa ikusgai, Elorrioko kultur etxean. Aitzindari izan ziren emakume kirolarien argazkiekin bisitariaren oroimena piztea da antolatzaileen helburua. "Benetakoa den, baina gutxitan kontatu izan den istorioa" azaleratu gura dute.

Era berean, emakumeen istorioa da gai sozialei buruzko Hilean Behin zikloak martxorako dakarrena. Martxoaren 12an, Elorrioko Iturri kultur etxean emango dute 2012an ekoitziriko *Rafea eta Eguzkia* filma.

Rafea emakume beduinoaren istorioa kontatzen du Jehane Noujaim eta Mona Eldaief egiptoarrek zuzenduriko lanak. Jordaniako basamortuko herri-rik pobreenetako batean bizi da

Rafea bere lau alabekin. Alfabetatu bakoa den arren, Indiara bidaiatu eta eguzki ingeniari izateko prestatuko da. Tradizio injustuen aurrean hezkuntzak duen boterea erakutsiko du.



Rafea beduinoaren istorioa kontatzen du eguaztenean emango duten filmak.

Kirola

> **FUTBOLA**

Amorebieta futbol talde guztietako jokalariek kromoetan batu daitezke

Iazko arrakasta ikusita, aurten kromoen bilduma berrargiratzea erabaki du futbol klubak



Amorebieta futbol klubeko koordinatzaile Joseba Arana denda ofizialean, doan eskuratu daitezkeen liburuxkagaz.

> **JOSEBA DERTEANO**

Amorebieta futbol klubak ekimen arrakastatsua abiatu zuen iaz: kluba osatzen duten talde guztietako jokalariekin –benjaminetatik hasi eta nagusietaraino– osatutako kromoen albuma argitaratu zuen. Ekimenak hain harrera ona izan zuenez, aurten albuma berrargitaratzea erabaki dute.

Bigarren B Mailan eta Bizkaian aitzindaria izan zen ekimena, iaz. Aurten Barakaldo,

Gernika eta Sestao taldeek ere eredu bera jarraitzea erabaki dute, diru iturri bat izateaz batera, herrian zeresana emateko eta zaletasuna sustatzeko modua ere badelako.

Amorebietak orain bi aste ipini zituen salgai kluba osatzen duten 20 taldeetako jokalariek guztien kromoak berriro. Herriko 14 establezimendutan eskuratu daitezke; herriko gozoki denda guztietan eta Txolon futbol zelaian, esaterako. Euro baten

truke zortzi kromoko sobre bat eskuratuko du bilduma egiten dabilenak. Kromo horiek itsasteko liburuxka, aldiz, doakoa da, eta Amorebieta futbol klubeko denda ofizialean hartu daiteke: 17:00etatik 20:00etara astegunetan, eta 11:00etatik 13:00etara zapatuetan.

Guztira, 400 bat jokalariek inguruko albuma osatu daitezke. Horietatik gehienak benjaminetatik hasi eta Bigarren B Mailan diharduen talde nagusirainoko

jokalariek dira. Baina modu batera edo bestera klubarentzako esanguratsuak izan diren jokalariek ere badaude; batez ere, 90eko hamarkadakoak, baina aurreragokorik ere bai. Beste atal batean klubaren une historikoak jasotzen dituzten 20 bat kromoen bilduma ere egin daitezke. Horrela, orain urte bi Amorebietagaz Bigarren A Mailara igotzeko kanporaketa jokatu zuen Xabi Gurtubairen, gaur egun Athleticen dabilen

Xabi Etxeitaren eta Barakaldon dabilen Jon Orbegozoren argazkiak lortu daitezke albuma osatzerako orduan. Jonen anaia Mikelek ere Amorebietan jokatzen du gaur egun.

Horrelako albumetan gertatzen den legez, kromo batzuk lortzea gaitzagoa izango da beste batzuk eskuratzea baino. Eta zailak diren horiek ez dute zertan izan jokalariek historiko batean, edonorenak izan daitezke.

Gaztetxoeren ilusioa

Amorebieta futbol klubeko gerentea den Saioa Larrinagak ekimenak gaztetxoeren artean eragin duen “ilusioa” nabarmendu du: “Futbol klubean dabiltzan gaztetxoak oso pozik daude euren burua album batean ikusita. Normalean, horrelako albumak lehen mailan ezaugarriak diren jokalariekin egiten dituzte, eta orain eurak ere protagonista direla ikusteak ilusioa eragin die”. Klubak orain aste bi berrargitaratu zituen kromoak, baina gaztetxoak “irailetik hona galdezka zebiltzan ea kromoen bilduma berriro egiteko modua noiz izango duten”.

“Gaztetxoak irailetik hona galdezka zebiltzan ea bilduma berriro egiteko modua noiz izango duten”

Ekimenaren arrakasta “sorpresa bat izan da denontzat, eta espero baino harrera hobea izan du”, adierazi du Larrinagak. Gainera, klubarentzako diru iturri bat ere bada. Orain eskuagarri dagoen bildumak ere harrera ona izaten badu, kromoen bilduma urteroko ekimena izan daitezkeela adierazi dute.

> **XAKEA**

Euskal Ligako Ohorezko Mailara igoera lortu du Abadiño taldeak

Euskal Liga amaitzeko jardunaldi baten faltan igoera matematikoa lortu du Abadiño Xake Taldeak; Abadiño beste talde bi ere igotzeko aukerekin daude

> **J.D.**

Euskal Ligako mailarik gorenean jokatuko du Abadiño Xake Taldeak datorren denboraldian. Joan zen asteburuan lortu zuen igoera, Lehen Mailako ligako azken aurreko jardunaldian. Alain Prieto, Ieray Galtzagorri eta Saralde anaiek osatu dute aurtengo talde titularra.

Datorren denboraldikoa ez da Ohorezko Mailan jokatuko duten lehen aldia izango. Aurretik ere izan ziren, hiru

urtez. Ondoren, xake taldearen beheraldia heldu zen. Lehenengo Mailara jaitsi ostean, han irauteko motibazioa falta izan zitzaion xakelari nagusiei: asteburuetako konpromisoak, sarritan urrutiko joan beharra... Horregatik, eurek hala erabakita, mailari uko egin zioten, eta Bizkaia mailara jaitsi ziren. Sarralde anaiek taldera batu zirenean, taldearen ilusioa apurka berpiztu egin zen, eta behetik gorako bideari ekin zion, birritan

mailaz igo, eta berriro Ohorezko Mailara heldu arte.

Oro har, Abadiño klub guztiak maila handian dabilta aurten. Esaterako, Bigarren Mailan Abadiño C igoera postuan dago, eta asteburuan Conteneo lideraren aurka lehiatuko da. Hirugarren mailatik hiru talde igoko dira, eta baliteke hirurak Durangaldekoak izatea: Abadiño D, Abadiño E eta Larrasoloeta B. Bizkaia mailako ligetan jardunaldi bi falta dira amaierarako.



Abadiño Xake Taldea osatzen duten xakelarien familia argazkia.

> PILOTA

Euskal Herriko finala jokatuko dute bihar Gorka Otadui eta Aitor Elordik

Gorka Otadui berriztarrak eta Aitor Elordi mallabitarrak Euskal Herriko Pilota Txapelketako finala jokatuko dute bihar, Azkoitian; Iurretako pilota eskolan dabilta biak Josetxo Areitoren aginduetara



Aitor Elordi, Josetxo Areitio eta Gorka Otadui martitzen goizean, lurretako pilotalekuan, egindako entrenamenduan.

> JOSEBA DERTEANO

Olaburu pilota eskolak norabide berri bati ekin zion orain lau urte. Ordura arteko lan dinamika aldatu zuen, eta pilotari gazteen trebakuntza Josetxo Areitio prestatzaileak, eta Pablo Berasaluze eta Alexis Apraiz pilotariak osatutako hirukoaren ardura geratu zen. Dinamika berria fruituak ematen dabil apurka. Horrela, sasoi hartan haur kategorian zebiltzan Gorka Ota-

duik eta Aitor Elordik Euskal Herriko Pilota Txapelketako finala jokatuko dute gazte mailan, bihar, Azkoitian (Gipuzkoa).

Finala jokatzeko orain hiruzpalau urte "pentsatu ezinezko" lorpena litzatekeela uste du Valen Calleja pilota eskolako presidenteak. Baina ametsa errealitate bihurtu zaie, eta partidu "estua" dute aurretik. Bortzirik (Nafarroa) taldeko Mitxelena eta Martinez izango dituzte

parez pare, bihar, Otadui eta Elordik. "Atzean Mitxelena apur bat jotzaileagoa da, baina Otadui oso pilotaria da. Erasoei eusten eta pilota baztertzen asmatzen badu, hor egon daiteke gakoa. Aurrean pilotari biek dakite tontoa amaitzen".

Txapelketa irabazi zein ez, orain arte egindako bidea ere kontuan hartzekoa da. Lehenengo, Bizkaiko Txapelketa irabazi zuten bigarren urtez jarraian.

> TXIRRINDULARITZA

Bizkarra amateurretako talde batean ibiliko da

Mikel Bizkarra Euskal Herritik kanpoko talde amateur batean arituko da aurtengo denboraldian

Asteon jakinarazi dute PinoRoad proiektua bertan behera geratu dela behin betiko. Ezin izan dute finantziarioa batu. Ondorioz, gaur talde barik dago Mikel Bizkarra mañariarra. Datorren urterako egitasmo berri bat lantzen dabilta PinoRoad proiektuaren atzean ibili dire-

nak, eta gauzatzen bada, proiektu horretan tokia izango duela esan diote. Bitartean, laster Euskal Herritik kanporako talde amateur batera batuko dela dio. Denboraldi honetan edo datorrenean profesionalek itzultzea lortu ezik, "txirrindularitza utziko" duela ere azaldu du.

> TRINKETEA

Uriarte eta Antxia Bizkaiko txapelaren bila, gaur

Gaur arratsaldeko finalean, Liher Gandiaga eta Mikel Gonzalez berriztarra izango dituzte parean

Bizkaiko Trinkete Txapelketako finalik esanguratsuenak Abadiño Tornosolon jokatuko dituzte gaur, 18:30etik aurrera. Nagusien lehen mailako finalean Ander Antxia eta Rober Uriarte abadiñarrek osatutako bikoteak Liher Gandiaga eta Mikel Gonzalez berriztarra izango ditu kontrario.

Aurretik, kadete eta gazte mailako finalak jokatu dituzte. Lehenengoan, Usansoloko Yurrebasok eta Sedanok Kurene taldeko Urrestiren eta Kami-rugaren kontra jokatu dute. Gazteetan Lea Ibarra Gabiola-Uriondo eta Lagun Onak taldeko Elorriaga-Larruzea dira finalera heldu diren bikoteak.

ADITUAREN TXOKOA



Oihana Azkorbebeitia

EHko mendi lasterketen taldeko hautatzailea

Ikusten ez den lana

Sarritan aipatu izan dut mendi lasterketek izan duten gorakada azken urte gutxi hauetan. Gero eta lasterketa gehiago antolatzen dira Euskal Herrian, eta baita mundu osoan zehar ere. Modan jarri den kirola dela esan dezakegu, modalitate honetan nabarmen igo baita korrikalarien eta jarratzaileen kopurua. Baina badakigu lasterketa bakoitza antolatzeak zer motatako lana dakarren? Guk, korrikalariok, entrenatu, lasterketak ahalik eta ondoen prestatu, izena eman, eta lasterketa egunean antolakuntzak jarritako orduan agertzearekin nahikoa dugu. Dortsala jarri, eta aurrera. Bakoitzak duen onena emango du.

Nekezagoa da, ostera, lasterketa bera antolatzea, galtzak bete lan eskatzen baitu: ibilbidea aukeratu eta neurtu, udalarekin eta abarrekin hitz egin, eta beharrezkoak diren baimenak lortu, boluntarioak bilatu lasterketa egunean bertan zein lehenago egin beharreko lana egiteko, diru-laguntzak lortu lasterketaren azpiegitura osoa ordaintzeko eta abar. Antolakuntza lanetan dabilenak baino ez daki zer nolako lana eskatzen duen. Eta zer esanik ez antolatu beharreko lasterketa Euskadiko Kopako edo Munduko Kopako zirkuituan sartzen bada. Ofizialtasun horrek konpromiso maila handiagoa eskatzen du.

Argi dago, beraz, ezingo genukeela lasterketez gozatu, aipatutako lan "ezkutu" hori norbaitek egingo ez balu. Eskerrik asko antolakuntzan dabilta guzti-guztiei.

A. Urreta
podologoia

Binara Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

HERRIKO GUDARIEN KALEA, 10, BEHEA
48200 · DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

R.P.S. 21406

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017

PNEUMATIKOAK



%90

EKO DESKONTUA 2. PNEUMATIKOAN

Pneumatiko aldaketa: 15,60€+BEZa (unitatea)

Barne: eskulana (muntaketa eta doikuntza) + balbulak*
+ kontrapisuak + turismoen hondakinen kudeaketa

MICHELIN GOODYEAR BRIDGESTONE Continental PIRELLI DUNLOP

*: Sentsore gabeko balbulak



MARKA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETA

ASEGURU - ETXE GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU*

KARROZERIA



%10

EKO BALIOA DUEN TXARTELA

ZURE HURRENGO KONPONKETA EDO MANTENTZE-LANERAKO

Karrozeria konponketetan, fakturaren (BEZa barne) zenbatekoaren
%10eko balioa daukan txartela opari.

200€ gehienez.

MEKANIKA



OLIOA + IRAGAZKIA

- 59€ TOTAL QUARTZ 7000 10W40
- 69€ TOTAL QUARTZ 9000 5W40
- 79€ TOTAL INEO ECS 5W30

- 2 litrokoa baino motor handiagorik ez
- Jumper modeloa ez dago barne
- INEO 5 litroa arte

3 CITROËN C-ELYSÉE-ren zozketa

Eskaintza 2014/03/31 arte egongo da indarrean

BANAKETA-UHAL KIT-A

- GUTXIENEZ %30EKO DESKONTUA
- ORDEZKO PIEZETAN
- %10EKO DESKONTUA ESKULANEAN

IAT AURREKOA

- IAT AURREKO AZTERKETA BEREZIA DOHAINIK
- %25EKO DESKONTUA ORDEZKO PIEZETAN
- %10EKO DESKONTUA ESKULANEAN

BEIRA ALDATZEARREN NABIGATZAILE BAT OPARI



IURRETA



Eskaintza guztiak 2014/02/01etik 2014/06/30era egongo da indarrean

MUTUAMADRILEÑA izan ezik.

TABIRA AUTOMOCIÓN, S.A. CITROËN ETXEKO ZERBITZU OFIZIALA

Padureta 1 industrialdea - 48215 IURRETA

tel.: 946 811 108

tabira@tabira.redcitroen.com

http://redoficial.citroen.es/iurreta

> DUATLOIA-TRATLOIA

Durangoko proba bertan behera eta Garaikoa arriskuan

Trafiko Zuzendaritza zorrotz jarri da, eta egun berean errepideko lasterketa bik ezin dutela bat egin esan du; litekeena da hainbat proba ezin antolatu izatea



Durangoko duatloiko iazko une bat. MugarraTT.

> JOSEBA DERTEANO

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza araudia zorrotz betetzen hasi da aurten. Diotenez, probintzia berean ezin dute egun eta ordu berean errepideko lasterketa bik bat egin. Ondorioz, hainbat duatloi eta triatloi ez antolatzeak arriskuan daude. Durangaldean, martxoaren 29ko Durangoko duatloiak eta uztailearen 5eko Garaiko triatloiak txirrindularitza proba batzuekin bat egiten dute. Trafiko Zuzendaritzatik esan diete egun horietan ezin dutela antolatu. Mugarra Triatloi Taldeak bertan behera utzi du Durangokoa, eta Garaikoa ez antolatzeak arriskuan dago.

> ATLETISMOA

Domina asko irabazi dituzte Euskadiko Txapelketan

Bidezabaleko Irene Perezek urrezkoa irabazi zuen

Zapatuan Euskadiko Atletismo-ko Txapelketa (pista estalian) jokatu zuten Donostiako Anoeta belodromoan kadete, gazte eta junior mailetan. Durango Kirol Taldeko zein Bidezabal klubeko atletak hainbat domina irabazi zituzten.

Bizkaiko federazioeko ordezkariak buru-belarri dabilta Trafiko Zuzendaritzagaz bitartekari lana egiten. Horren bitartez, Durangoko duatloia egiteko beste data bat proposatu diote Mugarrari. Euskadiko Triatloi Federazioari bidali diote data hori, onespina jasotzeko, baina oraindik ez dute erantzunik jaso: "Euskadiko federazioaren aldetik ez dugu batera laguntzarik ikusten", salatu du Mugarrako kide Serafin Bereziartuak. Federazioaren baietza jaso ondoren ere, Mugarrak baloratu beharko luke data hori bideragarria den edo ez. Era berean, datorren astean Bizkaiko duatloi eta triatloi taldeen arteko batzar bat egiteko

asmoa dagoela adierazi du, egoterra denen artean aztertzeko.

> Garaiko triatloia arriskuan

Garaiko triatloia ere "bertan behera geratzeko arriskuan dago", triatloi taldeko Jon Sarasuak adierazi duenez. Uztailearen 5aren ordezkariak beste data batzuk proposatu dizkiete Trafiko Zuzendaritzatik, baina bat bera ere ez dute bideragarri ikusten oraindik. Ekaineko domeka arratsaldeak proposatu dizkiete, esate baterako, baina triatloiak proba luzeak direnez, beranduegi amaituko litzatekeela uste dute. Proposatutako beste datak ere ez dituzte konbentzitu.

mina jantzi zuen 800 metroan, 2.27.42ko denboragaz.

Bidezabal klubari dagokionez, emakumeetan Irene Perezek urrezko domina lortu zuen gorako jauzian: 1.57 metro. Irantzu Aresen domina bi irabazi zituen: zilarra luzera jauzian (4.67) eta brontzea jauzi hirukoitzean (10.37). Alazne Etxebarriak zilarra irabazi zuen 200 metroan. Gizonetan, Ander Garciandiak brontzea jantzi zuen juniorren 800 metroan, eta Alejandro Bilbao zilarra distantzia berean, baina gazte mailan.

> ARETO FUTBOLA

Presion Break taldeak tinko darrai lidergoan

Areto-futboleko Maila Gorenean Berrizko Presion Break taldeak sendo jarraitzen du sailkapenaren buruan. Joan zen asteburuan, etxetik kanpora, 5-9 irabazi zuen Sapuberrri taldearen kontrako derbia. Baina etxean dabil ondoen. Orain arte Berrizburun jokatuak hamar partiduak irabazi ditu. Liga amaitzeko hamar jardunaldiren faltan, lau puntuko aldea ateratzen dio Gramol taldeari.

Maila berean, Sasikoa B estu dabil. Etxean ezin izan du partidu bat ere irabazi orain arte, eta azken-aurreko daude.

> ERRUGBIA

DRTk Iruñeko taldea hartuko du Arripausuetan

DRT-Urribaldeak emakumeen errugbi taldeak Iruñeko La Unika taldearen kontra jokatu du gaur, 19:30ean, Durangoko Arripausuetan. Lehen itzulian, Iruñean jokatuak lehian DRT-Urribaldeak irabazi zuen, oso puntu gutxiko partiduan: 0-5. Gaur ere partidu lehiatua jokatzea espero da; sailkapenean 17na punturekin berdinduta daude. Irabaziz gero, denboraldiko laugarren garaipena litzateke DRT-Urribaldearentzat.

> SASKIBALOIA

15 partidutan 13. garaipena gura du Tabirakok

Gizonen Tabirako-Baqué gizonen taldeak 12 garaipen lortu ditu azken 14 partiduetan. Bide Bide Donostia eta Mondragón Unibertsitateak izan dira durangarren bolada ona apurtzeko kapaz izan diren bakarrak. Azken hiru partiduak segidan irabazi ditu Tabirako Baquék, eta asteburuan bolada on horri jarraipena ematen saiatuko da. Azkoitia-Azpeitiaren kontra etxetik kanpora jokatu du partidua.

> AGENDA

> FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Durangoko Kulturala - Zalla
· Zapatuan, 17:00etan, Tabiran.

OHOREZKO MAILA

Iurretako - Getxo

· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelaian.

MAILA GORENA

Abadiño - Ugeraga

· Zapatuan, 16:30ean, Astolan.

HIRUGARREN ERREGIONALA

Elorrio B - La Salle

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

Zaldia B - Sondika B

· Zapatuan, 16:30ean, Solobarrian.

LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)

Iurretako - Ugao

· Domekan, 16:00etan, Larrakozelaian.

> ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Sasikoa - Uxo

· Zapatuan, 17:30ean, Landako kiroldegian.

MAILA GORENA

Elorrioko Buskantza B - Sapuberrri

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian.

Presion Break - Sestao

· Zapatuan, 16:45ean, Berrizburun.

Sasikoa B - Mamarigako

· Zapatuan, 19:30ean, Landako kiroldegian.

LEHENENGO ERREGIONALA

Dantzari - Freunde

· Zapatuan, 16:00etan, Iurretako Lanbide Heziketa Institutuan.

BIGARREN ERREGIONALA

Racing Tolosto - Mallabia B

· Zapatuan, 16:00etan, Landako kiroldegian.

Presion Break B - Elorriko Txiki

· Zapatuan, 18:10ean, Berrizburun.

> SASKIBALOIA

ADECCO PLATA LIGA

Zornotza - Azpeitia-Azkoitia

· Domekan, 12:00etan, Larrean.

LEHENENGO MAILA

Tabirako Baqué - EHU Araba

· Domekan, 12:00etan, Landakon.

BIGARREN ERREGIONALA

Tabirako Baqué - Guerto

· Domekan, 12:00etan, Tabiran

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER

Eraikuntzarako materiala
MACOBER

Zeramika eta gresa

Eitua Industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

artekalea 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

hitz
liburudenda

EDERTASUN GIDA



Jon Sopelana. **Iunik.**

Kalitatea eta kolorea

BEZa %8tik %21era igo dizuete. Azkenaldian ile apaindegi batzuk itxi behar izan dira. Zelan egin aurre?

Bezeroen eskariari jarraituta, kalitatean eta prestakuntzan sartzen gara. Bilboko Merkataritza Ganberako Kalitatearen Q-a daukagu. Gainera, produktu naturalak eta kalitatezko mozketak eskaintzen ditugu, bakoitzaren nahia eta moda uztartuta. Bestalde, ezkontza edo jaunartzeetarako hitzordua hartzeko aukera ematen dugu domeketan, eta ordutegitik kanpo ere bai.

Kolorearen kultura sustatzen duzue Iuniken, ezta? Zer da hori?

Ilearen naturaltasuna ateratzea da, izaera ahalik eta gutxien ukituta. Kolorazio tradizionalak pigmentu naturalak oxidatzen dituzte, eta ilea artifizial bihurtzen da. Iuniken, ostera, kolorea kanpoko geruzetatik ematen saiatzen gara, naturaltasuna gordeta. Oliopigmentuek, adibidez, ile zuriak estaltzea ahalbidetzen dute. Aktibo botanikoak dauzkate, 'ubuntu mafura' gisakoak. Hori, Afrikako medikuntza tradizionalan erabilitako landare baten olio da. Kolorea zaintzen du, ilea oxidaziotik babestuta, eta pigmentu naturalak mantenduta. Beste eredu bat buztinena da. Mineral eta landareen nahasketak dira. Ez dute buru-azala kaltetzen, eta babes geruza bat sortzen dute.



ILE-APAINDEGIAK



ESTETIKA ZENTROAK

Cristina Agirre
• apaindegia •

CA

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA • - MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

Ana Camarero
Edertasunerako tratamenduak eta aholkularitza

Lehen 300€ orain 120€

%60ko deskontua
Presoterapiako
10 saio

• Martxoaren 3tik 31ra bitartean •

Goenkalea, 16-1.esk • 48200 Durango
Tel.: 946 817 380 • Mug.: 639 375 474



BELAR-DENDA eta DIETETIKA

OSASUN-ETXEA
BELAR-DENDA eta DIETETIKA

Hurbildu zaitetz,
eta ikusi ezazu
Osasun Etxearen irudi berria!

PRODUKTU NATURALEN SALMENTA
DOAKO AHOLKULARITZA

Ermodo, 13 - Galerías Magdalena
Tel.: 946 814 246 • 48200 DURANGO



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

AGENDA

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu 94 623 25 23 telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Martxoaren 13an, 20:30ean,
Durangoko San Agustin kulturgunean

Juana la Loca

Erreinatzerik nahi ez zuen erreginaren istorioa da Granadako Histrion Teatro taldeak obra honetan kontatzen duena. Maitasuna eta desamodioa, mina eta pasioa dira istorio honen ardatzetako batzuk. Gema Matarranz aktoreak antzeztu du Juanaren papera, eta 2013ko Andaluziako antzerki sarien lehenengo edizioan emakumezko aktore protagonista onenaren saria jaso zuen.

Antzerkia

:: BERRIZ

Martxoaren 7an, 18:00etan, **Aladdin**, Kultur Etxean.

Martxoaren 8an, 20:00etan, **'Tre-men das'**, Kultur Etxean.

:: DURANGO

Martxoaren 13an, 20:30ean, **'Juana la loca, la reina que no quiso reinar'**, San Agustinen.

:: ELORRIO

Martxoaren 8an, 18:00etan, **Begiak zabaldu**, plazan.

Martxoaren 15ean, 19:30ean, **'Juana la loca, la reina que no quiso reinar'**, Arriolan.

:: ZORNOTZA

Martxoaren 15ean, 18:00etan, **Erpurutxo**, Zornotza Aretoan.

Bertsoak

:: BERRIZ

Martxoaren 14an, 20:30ean, **Ez da kasualitatea bertso saio musikatua**, Kultur Etxean.

Musika

:: DURANGO

Martxoaren 7an, 22:30ean, **Doctor Deseo**, Plateruenean.

Martxoaren 8an, 19:30ean, **M8ko batukada, txalaparta, animazioa, dantza afrikarrak, poema hipokondriakoak**, Plateruenean.

:: ELORRIO

Martxoaren 7an, 22:30ean, **Lagunarteko jaia, Segun Lazkanoren omenez: Poliputos + Todo en Do**, Arriolan.

Kontalaria

:: DURANGO

Martxoaren 9an, 17:30ean, **Enaitz ipuin kontalaria**, Plateruenean.

:: ZORNOTZA

Martxoaren 7an, 17:00etan, **Ipuin kontalaria (ingelesez)**, Liburutegian.

Berbaldia

:: DURANGO

Martxoaren 13an, 19:00etan, **Artearen Ezau-pidea: Artea eta emakumea. Haizea Barcenilla, 'Exponer y exponerse: la visibilidad de las mujeres artistas'**, Arte eta Historia Musean.

:: ELORRIO

Martxoaren 19an, 18:30ean, **'Emakumezkoen alarguntasuna' azterketa sozio-demografikoaren aurkezpena**, Iturrin.

:: IURRETA

Martxoaren 11n, 18:30ean, **Josune Muñoz (Skolastika): 'Cómico femenino actual'**, Ibarretxen.

Dantza

:: DURANGO

Martxoaren 8an, 18:30ean, **Dantza Alardea: Andaluziar zentroko abesbatza eta dantza taldea + Kriskitin + Herri Maite**, San Agustin kulturgunean.

Zinema

:: BERRIZ

Martxoaren 7an, 22:00etan, **'La vida de Adele'**, Kultur Etxean.

Martxoaren 12an, 20:00etan, **Emakumea film laburrean**, Kultur Etxean.

:: DURANGO

Martxoaren 14an, 19:45ean, **'La bicicleta verde'**, San Agustinen.

:: ELORRIO

Martxoaren 13an, 19:30ean, **'Rafea y el sol, la lucha de una mujer por cambiar su destino'**, Iturri kultur etxean.

Erakusketa

:: DURANGO

Martxoaren 14ra arte, **Jabekuntza erretratuak**, Andragunean.

Martxoaren 30era arte, **Jesus Lizasoren 'Ortotropiak', eskulturak**, Arte eta Historia Musean.

:: ELORRIO

Martxoaren 12ra arte, **Emakumea eta kirola argazki erakusketa**, Iturri kultur etxean.

Urteurrena

:: ZALDIBAR (gaztetxea)

Martxoaren 7an, 17:00etan, **horma irudia**. 23:00etan, **jokoen gaua**.

Martxoaren 8an, 14:00etan, **Emakume langilearen mosaiko jendetsua**, udaletxeko plazan. **14:30ean, herri bazkaria eta ekitaldia**. 18:00etan, **poteo girotua**. 23:00etan, **Kontzertuak: Bilbomotiks + Pepe Botika**.

Martxoaren 29an, **Sagardotegira irteera**. Izen-ematea, Herriko tabernan.



:: DURANGO | ZUGAZA

Emperador

Zuzendaria: Peter Webber

- barikua 7: 19:30/22:00
- zapatua 8: 19:30/22:30
- domeka 9: 18:30/20:30
- astelehena 10: 18:30/21:00
- martitzena 11: 20:00

Jelly T. Tarzan eskasa

- zapatua 8: 17:00
- domeka 9: 16:45

En solitario

Zuzendaria: C. Offenstein

- eguena 13: 20:00

2. ARETOA 300: El origen de un imperio

Zuz.: Roman Polanski

- barikua 7: 19:30/22:00
- zapatua 8: 17:00/19:30/22:30
- domeka 9: 18:00/20:30
- astelehena 10: 18:30/21:00
- martitzena 11: 20:00

:: ELORRIO | ARRIOLA

La vida de Adele

Zuzendaria: Philipp Stölzl

- zapatua 8: 22:30
- domeka 9: 20:00
- astelehena 10: 20:00

El caballero Don Laton

Zuzendaria: T. Bodenstein

- domeka 9: 17:00

:: ZORNOTZA

12 años de esclavitud

Zuzendaria: Steve McQueen

- barikua 7: 20:15
- zapatua 8: 19:30/22:30
- domeka 9: 20:00
- astelehena 10: 20:15

Un pez fuera del agua

Zuzendaria: Aun Hoe Goh

- zapatua 8: 17:00
- domeka 9: 17:00

La vida de Adele

- martitzena 11: 20:00

MARTXOKO AGENDA

7

HAURTXOEN IRAKURKETA KLUBA
Iurretako Herri Biblioteka
17:00 HHko 3,4 eta 5 urteko gelakoak.
18:00 LHko 1. eta 2. mailak.

GIZARTE ONGIZATEA

Ibarretxe kultur etxea
18.30 Adierazpen instituzionalaren irakurketa
19:00 Bideo-foruma "La bicicleta verde"
Moderatzailea: Marina Santa Coloma

8,9

IURRETAKO TXIRRINDULARI ELKARTEA
9:30 Hainbat Ibilbide (83-88 km).

8

EMAKUMEEN BIRA ZIKLISMO K.E.
10:00 Errepideko entrenamendua. Iurreta (45km)

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA
Anderebide Iurretako Emakumeen Elkarte
21:30 Ikuspegi jabetxea (Goiuria) Musikaz alaiturik
20:45 Autobusa jarriko da Goiuriara igotzeko Bidebarrietako geltokian
21:30 Emakumeentzako afaria

9

EMAKUMEEN BIRA ZIKLISMO K.E.
10:00 Errepideko entrenamendua. Zeanuri (42 km)

10

HAURREN IRAKURKETA KLUBA

Iurretako Herri Biblioteka
17:00 8-9 urte
18:00 9-10 urte.

EMAKUMEEN LITERATUR TAILERRAK
Iurretako Herri Biblioteka
18.15 "Escritoras Norteamericas del siglo XIX"
Dinamizatzailea: Ana Arisqueta (Skolastika)
Aldez aurretik izena eman

11

HITZALDIA - Gizarte ongizatea
Ibarretxe kultur etxea
18:30 "Comic femenino actual". Hizlaria: Josune Muñoz (Skolastika)

> **DENBORAPASAK**

> **Sudokua**

1

8	1	6	5					
	5		2		9	6		
			6		3		8	
	8		4	5				
3			7					2
			9	1			7	
9		7		5				
		8	4		1		2	
					8	9	3	5

2

						8	9	6
			4	1				
2	6	7						5
6				5	3		8	
	4		9		7		1	
	1		8	2				9
9						2	5	4
				9	1			
5	8	3						

> **ZORION AGURRAK**

✉ zorionak@anboto.org
eguztzeneko 14:00ak arteko epea



> Gure etxeko erreginak 42 urte betetzen ditu gaur. Patxo handi bat Jon eta etxeko guztion partez: Paaaaa!



> Otsailaren 23an jaio zan gure pixpirriñe! Ondo etorri mundure **Arhane Mezo Perez** etxekuen partez!



> Aupa Txiki Txoko City! Zelako ondo pasau gendun! Orain datorren urteko mozorru pentsetan hasi beharko dogu! Jei jei jei...



> 1944an jaiotako kinto-bazkaria. Beste behin ere, urteroko bazkaria aprobetxatu dugu ospakizunerako. Neguko egun zoragarria izan genuen arren, euri, haize, hotz eta guzti, betikoa egin genuen: jesuitetara bisita soziala egin genuen eta mezatarra joan ginen, poteorako dirua jarri genuen, eta Kobikara joan ginen bazkaltzera. Beste egun eder bat!



> Domekan 4 urte egingo dauz **Anerrek**. Zorionak aita, ama, Irati eta Izarren partez! Ondo pasa zure eguna Bikingo!



> Hemen elkartu ziran, hilak 11an, Celulosa de Nervión-eko 1960ko langile emakumeak.

Jose Antonio Agirre, 4
946 200 869
Avda. Montevideo, 1
946 204 383

> Zorionak **Igor eta Haizea lehengusuak!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeke txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoiztan: Bixente Kapanaga, 9an.

> **BOTIKAK**

- BARIKUA, 7**
09:00-09:00
• **De Diego** (Intxaurren 22 - Durango)
• **Goiria, Mari Carmen** (Sabino Arana 6 - Zornotza)
- ZAPATUA, 8**
09:00-09:00
• **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
• **Goiria, Mari Carmen** (Sabino Arana 6 - Zornotza)
09:00-13:30
• **De Diego** (Intxaurren 22 - Durango)
• **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)
• **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)
• **Navarro** (Artekalea 6 - Durango)
• **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango)
• **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango)
• **Irigoiñ** (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
• **Larrañaga-Balentiaga** (Berrio-Otxoa 6 - Elorrio)
• **Urizar** (Gabiola 2 - Berriz)
- DOMEKA, 9**
09:00-09:00
• **Gaztelumendi** (J.A. Abasolo 2 - Durango)
09:00-22:00
• **Eguren, Isabel** (Trañabarren 15 - Abadiño)
• **Goiria, Mari Carmen** (Sabino Arana 6 - Zornotza)
- ASTELEHENA, 10**
09:00-09:00
• **Navarro** (Artekalea 6 - Durango)
• **Melero, Rosa Mari** (San Pedro 31 - Zornotza)
- MARTITZENA, 11**
09:00-09:00
• **Gaztelumendi** (J.A. Abasolo 2 - Durango)
09:00-22:00
• **Melero, Rosa Mari** (San Pedro 31 - Zornotza)
- **Lopez de Aretxaga** (Torresolo 4 - Abadiño)
- EGUAZTENEA, 12**
09:00-09:00
• **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango)
• **Melero, Rosa Mari** (San Pedro 31 - Zornotza)
- EGUENA, 13**
09:00-09:00
• **Etxebarria** (Montevideo etorb. 2 - Durango)
• **Melero, Rosa Mari** (San Pedro 31 - Zornotza)

> **TELEFONO INTERESGARRIAK**

- SOS Deiak 112
Gurutze Gorria **94 681 09 49**
Osakidetza **94 600 72 00**
Ertzaintza **94 466 93 00**

> **GARRAIOAK**

- Euskotren **902 54 32 10**
Bizkaibus **94 448 40 80**
Pesa **902 10 12 10**
Continental Auto **945 286 466**

> **TAXIAK**

- Abadiño **94 681 44 70**
Matiena **606 459 988**
Durango Geltokia **94 681 10 01**
Elorrio Geltokia **94 682 00 40**
J.L. Uriarte **670 402 002**
I. Estebez **670 678 273**
M. Galeano **670 409 330**
Iurreta **94 620 15 65**
Taxi auzunea **688 618 690**
Berrizko auzo taxia **620 022 800**

> **UDALAK**

- Abadiño **94 621 55 30**
Atxondo **94 682 10 09**
Berriz **94 682 45 84**
Durango **94603 00 00**
Elorrio **94 658 27 12**
Garai **94 681 63 93**
Iurreta **94 620 12 00**
Izurtza **94 681 35 48**
Mallabia **943 17 14 61**
Mañaria **94 681 89 98**
Otxandio **945 45 00 20**
Zaldibar **94 682 70 16**

> **UDALTZAINGOA**

- Abadiño **94 621 55 33**
Berriz **94 682 40 36**
Durango **94 603 00 00**
Elorrio **94 682 02 18**
Iurreta **94 620 08 88**

> **AZOKA-BASERRITIK-PLAZARA**



Abadiño (Traña-Matiena)
Eguaztzenetan
10:00etatik aurrera
Durango
Zapatu goizetan
Zornotza
Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

- Letxuga.....**0,80 euro**
Letxuga haritz hostoa**1 euro**
Azelga**2 euro/kg**
Espinaka txorta**1,20 txorta**
Berakatz freskoa**1,50 txorta**
Ilarrak**6 euro/kg**
Tomate kontserba...**3,90 euro/potea**
Arrautzak.....**3,80 euro/dz**
Idiazabal gazta.....**17 euro/kg**
Gari integraleko ogia**3,30 euro**

SUDOKUEN SOLUZIOAK

1

1	6	9	6	2	7	4	2	3	8	5
5	3	8	4	7	2	1	9	6	3	2
6	2	9	1	6	5	9	1	3	7	8
7	1	6	3	8	8	2	2	5	4	6
6	9	3	6	5	4	4	6	6	3	9
1	2	3	4	8	6	9	7	5	1	2
7	3	4	8	5	3	3	4	8	7	6
2	6	7	3	8	9	1	4	5	2	0
8	5	9	6	4	1	6	7	2	0	9
1	3	4	2	7	5	8	9	6		

2

1	6	9	6	2	7	4	2	3	8	5
5	3	8	4	7	2	1	9	6	3	2
6	2	9	1	6	5	9	1	3	7	8
7	1	6	3	8	8	2	2	5	4	6
6	9	3	6	5	4	4	6	6	3	9
1	2	3	4	8	6	9	7	5	1	2
7	3	4	8	5	3	3	4	8	7	6
2	6	7	3	8	9	1	4	5	2	0
8	5	9	6	4	1	6	7	2	0	9
1	3	4	2	7	5	8	9	6		

4° 21° ZAPATUA ☀

6° 19° DOMEKA ☀

6° 20° ASTELEHENA ☀

4° 18° MARTITZENA ☀



Kale izenak

Lagun batek esan dit Arrasaten 146 kaletatik batek baino ez daramala emakume izena, eta bera oraintsu onartu delako. Hori entzun eta atoan Durangoko kale izenak arakatzeko hasi naiz, eta ai ama!

Ondo zenbatu badituz, Durango Arrasaten baino kale gehiago daude, eta haietatik, santuenak kontuan hartu barik, 21 kalek daukate gizon ospetsuren baten izena: Agirre Lehendakaria, Ambrosio Meabe, Balbino Garitonandia, Bartolome Ertzilla, J.M. Iparragirre, J.M. Barandiaran, P.P. Astarloa, Ramon Rubial...

Ostera, andre izenik ez dut aurkitu, Andra Mari eta santa izenak salbu, halandaze, Martxoaren 8aren harira zerrenda bat proposatzea pentsatu dut, Durangorako ez eze, Durangalderako ere baliagarriak izan daitezkeelakoan.

Hamabi emakume interesgarriren izenekin osatu dut zerrenda, hangoak eta hemengoak, bihar-etzi kale bana izan dezaten. Horra izen-deiturak, hurrenkera alfabetikoan:

Basille Bustintza, mañariar olerkaria. Begoña Ereñaga, durangar erraketista. Benita Uribarrena, erbesteko borrokalari antifaxista durangarra. Errose Bustintza, mañariar idazlea. Inese Munitxa, abadiñar maistra, gerra aurrean irakasle aritua, 1937an eskola umeekin Ingalaterrara joana. Julene Azpeitia, irakaslea, euskaltzaina eta idazlea. Maitena Belaustegigoitia, Zero, Deia eta Agur aldizkarietan hainbat orri idatzitakoa. Margarita Unzalu, idazlea. Mari, euskal mitologiako jainkosa nagusia. Marie Curie, Nobel saria irabazi zuen lehen emakumea. Miren Maortua zaldibartarra, gerra osteko diktadura sasoian, Etxe-eskola sortu zuen bere etxean. Simone de Beauvoir, idazle, pentsalari eta feminista famatua, emakumeen belaunaldiak markatu dituen.

EIDER RUIZ DE AGIRRE LARREATEGI | Suhiltzailea | Erromo (Getxo), 35 urte

“Prestatzen hasi aurretik suhiltzaile izatea ia ezinezko zerbait zela uste nuen”

Iurretako suhiltzaile etxean dabil lanean: “Ea apurka-apurka emakume gehiago animatzen diren”

> AMAIA UGALDE

Biologia ikasi eta laborategian orduak sartzetik suhiltzaile etxera egin zuen salto 2010ean Ruiz de Agirre Larreategik. Iurretako suhiltzaile etxean dabil orduetik hona lanean. Behar honetan dabilen emakume bakarretakoa da.

Zelan animatu zinen suhiltzaile sartzera?

Ni biologoa naiz berez, tesia egiten ibili nintzen, eta beka batekin laborategian mila ordu ematen nituen. Baina, bestalde, asko gustatzen zitzaidan, esaterako, surf egitea, kanpoan egotea eta kirola egitea, eta ez nuen ia denborarik horretarako. Lan finkorik ere ez, eta suhiltzaile izan ahal nintzela pentsatu nuen. 2007an egin nituen lehenengo oposizioak, probatzeko, eta 2009ko Bizkaiko oposizioetan sartu nintzen lan poltsan.

Suhiltzaile sartzeko probek gogor fama daukate.

Maila fisikoa behar da, baina gehiegi eskatu izan da, nire ustez. 2009ra arte probak oso gogorak izan dira; nire ustez, gogorregiak. Badago proba bat etzanda egon, eta pisuak altxatzearena: oso gogorra. Uste dut hori dela txarrena. Lesioak eta guzti egon ziren. Orain hori kendu dute.

Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunak ika-mikak sortu izan ditu arlo horretan. Zer iritzi duzu?

Nahiko gai delikatua da. Nik beti pentsatu izan dut oreka bat lortu behar dela. Nire ustez, oreka izango litzateke neskek eta mutilek minimo berberak



izatea, eta hortik aurrera baremoak desberdinak izatea. Eta probak ez izatea 2009an bezain gogorak. Bestela, zuzenean esatea dute neskak ezin direla suhiltzaile izan. Urtez urte proben gogortasuna handitzen joan izan dira, eta neskentzako zein mutilentzako oso gogorak ziren. Azkenengoetan maila dezente bajatu da. Hor eragina izan du emakumeen berdintasuna lortzeko bidean aldaketak egin guran ibiltzeak. Ez diot oraingoa onena denik. Denborarekin, lortuko da oreka. Gaia delikatua da.

Emakume gutxi animatzen da suhiltzaile izatera. Probak eurak dira horren arrazoi nagusi?

Maila fisiko handiko neska kirolari batzuk ezagutzen ditut, eta probetako maila erraz gaindituko luke tenak. Ez dakit. Ni neu prestatzen hasi aurretik ere ikusten nuen suhiltzaileena zerbait gaitza dela, lortzeko ia ezinezkoa. Hori buruan neukan, eta imajinatzen dut, orokorrean, beste emakumeek ere edukiko dutela buruan, baina probatu beharrean, pauso hori eman barik geratzen direla. Batzuetan amorrua ematen dit, badakidalako gai den jendea dagoela. Ea apurka-apurka neska gehiago sartzen diren.

Fisikoaz gainera, psikologikoki ere lan gogorra da zuena.

Bai, batez ere, auto istripuetan hildakoak daudenean. Esaten dute gogorrera umeak daudenean dela, eta bai, hori oso gogorra izango da. Nik oraindik esperientzia gutxi daukat. Auto istripu batzuk tokatu izan zaizkit, eta sute handi batean ibili naiz. Bai, estres egoera horietan

lasaitasun puntua mantentzea beharrezkoa da.

Sute handi bat esan duzu. Non izan zen?

Basaurin izan zen, eta gu hango suhiltzaileei laguntzera joan ginen. Beste kamioieie ura hornitzea tokatu zitzaidan. Lehenengo aldia zen horrelako egoera batean nengoela, eta kaosa ez zen izan, baina suhiltzaile pilo bat zebilen lanean. Koordinatzaileen lana garrantzitsua da horrelakoetan. Esan nuen: “Hau da suhiltzaileen benetako lana!”

Lehiaketa baterako prestatzen zabilzate orain. Zeinetarako?

Estatu mailan auto istripuen erreskateen txapelketa antolatzen da, eta finalera heltzeko, Bizkaia mailan lehiaketa egiten da. Aurten apirilaren 9an eta 10ean egingo da Iurretan. Bizkaiko suhiltzaile etxeetako hainbat talde egongo gara. Bilbokoak ere badatozela uste dut.

Entrenatzeko modu bat da, ezta?

Bai. Gure lanean hobetzeko eta motibatzeke balio digu. Azkenean, zenbat eta gehiago ohitu horrelako gauzak egitera, benetan gertatzen direnean hobeto irtengo direla imajinatzen dut. Gauza berriak ere ikasten dituzu. Iaz ni ez nintzen taldean egon, baina lankideei laguntzera joan nintzen, eta beste herri batzuetan lan zelan egiten duten ikusten duzu, eta hainbat lan tresna berri ere bai.

Zerk engantxatzen du lan honetan?

Pertsonen bizitza arriskuan dagoenean, arriskutik ateratze horrek. Gure lanak beste bati laguntzeko balio duela ikustea, hori da lanak duen politena.

ORAIN ZORNOTZAN ERE BAI

Anboto doan jasoko duzu zure etxean, datuak bete eta harpidetza-orri hau Zelaieta zentroko, AEKren euskaltegiko eta udal euskaltegiko sarreran dauden postontzietan utzita. www.anboto.org webgunean harpidedun egiteko aukera duzu, edo, bestela, anboto@anboto.org helbide elektronikora mezua bidali, eta egin zure eskaera.

IZENA

ABIZENAK

HELBIDEA

EMAILA

Egin zaitez harpidedun!

DOAN